

# Ikasleen artean Sustantzien Kontsumoa Eragozten

*Ikastetxeen Eragin Sozial Integraleko  
programak arrakastaz ezartzeko gida*

**Ikasleen artean Sustatzeko Kontsumoa Eragozten: Ikastetxeen Eragin Social Integraleko programak arrakastaz ezartzeko gida.**

**Egileak:**

Karl Bohr

Leila Fabiani

Ewa Florek

Roman Gabrhelik

Rosaria Galanti

Maria Kyriakidou

Sara Sanchez

Gabriela Terzopoulou

Serena Vadrucci

Maro Vassara

Federica Vigna Taglianti

**2008ko Urtarrila**

Argitalpen honek erabilgarri dago interneten [www.eudap.net](http://www.eudap.net) eta [www.edex.es](http://www.edex.es)

## Aipamenak

Gida hau argitaratzea ezinezkoa izango zatekeen Europako Batzordeak emandako dirulaguntzak gabe, halaber Eusko Jaularitzaren Etxebizitza eta Gizarte gaietako Sailaren dirulaguntzak gabe. Kritiko adituei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, beren ohar baliagarriengatik:

### **Irakasleak**

Ingrid Talu

Stefan Heinisch

Elisabeth Walleczek

Antonella Arrigoni

Claudio Barbieri

Maria Vittoria Bossolasco

Anna Campanini

Elisa Costanzo

Paola Giaccone

Giulia Laffusa

Riccardo Marola

Giovanna Odello

Giovanni Tondo

Dimitris Harbis

Agueda Laradogoitia

### **Ikastetxe Zuzendariak eta beste Profesionalak**

Maria Grazia Andreetta

Antonio Prestipino

Nicola Sacco

Giovanni Antonio Tacca

Stavroula Kalantidou

Elena Urigoitia

Jose María Sobrino

### **Eskualde Agintariak**

Thodoros Gigelopoulos

### **Nazio Agintariak**

Margaretha Haglund

Tadeusz Parchimowicz

### **Nazioarteko Berrikusleak**

Sergei Bazarya

Giovanna Campello

Gregor Burkhart



## **Aitzinsolasa**

Drogen eta Droga Menpekotasunaren Europako Behatokiko langilea naizen aldetik, ikastetxeetako eguneroko bizitzan frogetan oinarritutako prebentzio printzipioak ezarri nahi dituzuen erabaki hartzaileoi lagun diezazukeen gida bakanetako bat aurkezten dizut. Gure xedea drogekin eta osasun publikoarekin loturiko politikei buruz informazio objektiboa ematea da; beraz, prebentzioa ezin hobeki dokumentatuta, argi azalduta eta ongi ebaluatuta egon behar da.

Prebentzioa, asmo onekin bakarrik egiten bada, kaltegarria izan daiteke eta gazteek substantzia psikoaktiboekiko duten jakin-mina eta interesa areagotu dezake. Segurua eta eraginkorra izateko, osagai eraginkorrek ezartzetik haratago joan behar gara; osagaiok modu koherentean eman behar dira, sekuentzia egokian, elkar indartzeko moduan, gaiak zoriz edo aldartearen arabera aukeratu beharrean. Prebentzio protokolo integral horiek, eskuliburuak eta saio guztietarako material zein xehetasunak barne, (ikastetxeetako) benetako bizitzan ezartzea zaila dela pentsatu izan da sarritan.

Egia esan, ez da lan erraza, ezarpenak planifikazioa, estrategia global bat eta komunikazio asko eskatzen baitu.

Ni, ordea, pozik nago; izan ere, EU-Dap probaren emaitzek frogatu dutenez, posible da, hasiera batean, prebentzio protokolo egituratu bat Europa osoan ezartzea. Gida hau Europar Batasuneko bederatzi estatutako profesionalen esperientzia partekatuetatik sortua da, eta zera frogatzen du: Grezia eta Suedia, Polonia eta Espainia bezain errealitate desberdinetan, posible dela prebentzio programa zientifiko sakon bat ezartzea, kultura edo toki ezaugarriak edonolakoak izanda ere.

Horrek adorea ematen digu denoi.

Gregor Burkhardt, zuzendari zientifikoa

Prebentziorako erantzunak DDEB

## **Hitzaurrea**

2002. urtetik, EDEX-ek Europako beste zazpi herrialdeko erakundeekin batera, Austria, Belgica, Grezia, Italia, Polonia, Txekiar Errepublika eta Suecia, "EUDAP. European Drug Abuse Prevention" izeneko proiektua darama Europar Bazardeak eta Eusko Jaurlaritzak finantzatua.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikaleentzako droga-menpekotasuna saihesteko programa bat garatzea da ekimen honen xede nagusia. Bizitzarako Trebetasunetan oinarritutako programa bat da eta hiru urteetan zehar egindako ebaluzio zorrotz batek eraginkorra ere badela frogatu du.

2006. urtean eta programa droga-menpekotasunein aurre egiteko egokia dela nabaritu ondoren, Europako Batzardeak EUDAP 2 ere finantzatzen du. Bigarren ekimen honen helburuak dira programa ikerketa esperimentaletik harantzago Bizitzarako Trebetasunetan oinarritutako prebentzio programak ikastetxeetan sustatzwn laguntzeko asmoz.


Bi ekimen horiekin droga-menpekotasunaren aurka ari diren profesionalei zientifikoki ebaluatutako bi tresna eman nahi zaie eskoletan droga-menpekotasunaren prebentzioan eta osasun-hezkuntzan lan egin dezaten. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako programa eraginkor bat egin nahi da eta, era berean, jardunbide egokien gida bat, ikastetxean aipaturiko gida hori eta beste programa batzuk ezartzea ahalbidetzeko.

Hain zuzen ere, tresna hori da ondoren aurkeztzen dena. Helburua da eskolan Bizitzarako Trebetasunetan oinarritutako prebentzio programak egoki ezartzeko kontuan izan beharreko arauak eskaitzea hezkuntzaren profesionalari.

2005etik izandako sostengua eskertu nahi diegu Eusko Jaurlaritzari eta ikerketan parte hartu duten ikastetxeei, haiek gabe ezinezko izango zatekeen gida hau egitea. Zentroak ondorengo hauek dira:

HLHIP Pilarreko Ama (Bilbo)  
BHI Andra Mari (Galdakao)  
BHI Arrigorriaga (Arrigorriaga)  
BHI Azkorri (Getxo)  
BHI Berrio Otxoa (Bilbo)  
BHI Itxaropena (Trapagaran)  
BHI Miguel de Unamuno (Bilbo)  
BHI Zorrotza (Bilbo)  
BHI Zurbaran (Bilbo)

Espero dugu gida hau baliagarri izatea eta irakaslegoari bere hezkuntza praktiketan laguntzea.



Roberto Flores

EDEX – en Zuzendari Nagusia

## Irakurlearentzako Oharra

*Ikasleen artean Substantzien Kontsumoa Eragozten* EBko Droga Kontsumoaren Prebentziorako ikerketaren (EU-Dap) bigarren fasean parte hartu duten eta Europako Batzordearen dirulaguntzak jaso dituzten herrialdeekin prestatu da. Herrialdeak hauek dira: Belgika, Txekiar Errepublika, Espainia, Grezia, Italia, Austria, Polonia eta Suedia. Hala ere, Gida Europar Batasuneko zein kanpoko beste herrialde batzuek erabili/egokitu dezakete.

Gida hau bost zatitan dago banaturik: sarrera, irakurle zehatzei zuzenduriko hiru kapitulu eta tresna teknikoak biltzen dituen kapitulu bat. Sarrera irakurle guztiei dago zuzendurik eta kontzeptu tekniko batzuk azaltzen ditu, esaterako “prebentzio unibertsala” eta eragin sozial integrala (ESI). Lehenengo kapitulua eskualde eta nazio agintariei dago zuzenduta; izan ere, eremu guztiak barne hartzen dituztenez, hezkuntza sisteman eta osasun publikoko programetan eragina izan dezakete. Bigarren kapitulua ikastetxeetako zuzendarientzat da, eta eskola mailan programak prestatu, ezarri eta ebaluatzeko aholkuak ematen ditu. Hirugarren kapitulua irakasleei dago zuzendurik, eta gelan prebentzio programak emateko argibideak eskaintzen ditu. Liburuaren amaieran azaltzen diren tresna teknikoak hiru kapituluen osagarriak dira.

Gauza bat hartu behar da kontuan: agian, *Ikasleen artean Substantzien Kontsumoa Eragozten* liburuan jasotako aholku guztiak ezin zaie herrialde, ikastetxe edo gela guztiei aplikatu. Nolanahi ere, iradokizun horietako batzuk bideragarriak eta erabilgarriak izango direlakoan gaude.

Gure asmoa eragin sozial integralean (ESI) oinarritutako programa guztiak bultzatzea

da, gazteen artean drogen kontsumoa eragozteko ahalmena dutelako. Oharra: programa bat ESI motakoa izateko, baldintza zorrotz batzuk bete behar ditu (ikus Sarrera eta 1. Tresna). *Ikasleen artean Substantzien Kontsumoa Eragozten* liburua Europako Batzordeak finantzatu duenez EBko Droga Kontsumoaren Prebentziorako probaren eremuan, adibide gisa “Unplugged” izeneko ESI programa azaltzen da, proba esperimentalean aztertu dena.

Adeitasunez,

### EU-Dap Elkartea

EU-Dapen Zentro Koordinatzailea	Fabrizio Faggiano, Federica Vigna Taglianti, Barbara Zunino, Luca Cuomo
Austriako Zentroa	Karl Bohrn, Sebastian Bohrn
Belgikako Zentroa	Peer van der Kreeft, Yannick Weyts
Txekiako Zentroa	Roman Gabrhelik, Michal Miovsky
Greziako Zentroa	Maro Vassara, Gabriela Terzopoulou, Maria Kyriakidou
Italiako (Turin) Zentroa	Roberta Siliquini, Serena Vadrucci, Laura Vitale
Italiako (Aquila) Zentroa	Leila Fabiani, Maria Scatigna, Caterina Pesce
Italiako (Novara) Zentroa	Massimiliano Panella, Monica Fedele
Poloniako Zentroa	Ewa Florek
Espainiako Zentroa	Juan Carlos Melero, Oihana Rementeria, Laura Varona
Suediako Zentroa	Rosaria Galanti, Lotta Jansson, Sara Sanchez

## **AURKIBIDEA**

1. Glosategia .....	8
2. Sarrera .....	9
3. 1go Kapitulua.....	16
4. 2. Kapitulua .....	22
5. 3. Kapitulua .....	26
6. Tresnak	
6.1. 1go tresna: Nola aukeratu Eragin Social Integraleko (ESI) Programa bat .....	33
6.2. 2. tresna: Fondoak nola bildu.....	33
6.3. 3. tresna: Irakasleen prestakuntzari etekinik handiena nola atera .....	34
6.4. 4. tresna: Kalitatea kontrolatzeko ebaluazio bat nola egin .....	34
6.5. 5. tresna: Eskola bakoitza eman aurreko zerrenda .....	35
6.6. 6. tresna: Eskolen jarraipena egitea.....	36
6.7. 7. tresna: Programaren Ezarpenak kontrolatzea .....	37
6.8. 8. tresna: Gomendatutako Irakurgaiak.....	38

## **Glosategia**

ESI- Eragin Sozial Integrala

EBT – Europako Batzordea

DDEB - Drogen eta Droga-mendekotasunaren Europako Behatokia

EB – Europar Batasuna

EU-Dap - EBko Droga Kontsumoaren Prebentziorako Proba

GKE – Gobernu Kanpoko Erakundea

PAK - Proba Kontrolatu Ausazkotua

OME – Osasunaren Mundu Erakundea

OME-TKEI – Osasunaren Mundu Erakundearen Tabakoa Kontrolatzeko Esparru Ituna



## SARRERA

### 1. Substantzien kontsumoa nerabezaroan

Substantzien kontsumoa gazteen heriotzaren eta osasun txarraren arrazoi nagusienetako bat da. Beren ezaugarri toxikologikoen arabera, desberdintasun nabarmenak daude substantzien artean; eta ezaugarri horiek testuinguruetan eta substantziak administratzeko moduan daude oinarrituta. Adibidez, erretako eta kerik gabeko tabakoan dagoen nikotina substantzia psikoaktiboak berez ez du heriotzarik eragiten, baina tabakoa inhalatzea osasunarentzako kaltegarria izan daiteke epe luzean. Injektatutako heroinak, berriz, intoxikazio akutua eta intoxikazio kronikoa eragiten ditu, eta erlazionatutako gaixotasun infekziosoak ere bai, adibidez HIESa eta hepatitis.

Substantzia psikotropiko guztiek osasunarentzako arriskuak dakartzate epe labur eta luzean, eta adikzioa eta mendekotasuna eragin dezakete. Mendekotasunak etengabeko kontsumora darama, eta horrek kalte psikiko zein fisikoak eragiten ditu.

Europako zenbait herrialdetan, substantzia psikotropiko legal eta ilegal askoren kontsumoa handitzen doa, bereziki gazteen artean. Alkohola eta tabakoa dira Europako ikasleek errazen eskura ditzaketen drogak (1. Taula).

Substantzien kontsumoarekiko arrisku eta babes faktoreei buruz asko dakigu; hala ere, ezinezkoa da ezagutza hori erabiltzea droga baten mendean nor eroriko den iragartzeko. Geroago substantzien mende erortzen diren ia pertsona guztiak, nerabeak zirela hasi ziren horiek probatzen. Beraz, *prebentzio unibertsala* da arazo horri heltzeko lehenengo bidea, kontsumoaren hasiera atzeratuz.

### 1. Taula. Gazteen substantzia kontsumoaren adierazleak Europako zenbait herrialdetan<sup>1</sup>

Herrialdea	Mozkortuta azken 12 hilabeteetan %	Erretzen azken 30 egunetan %	Kanabisa erretzen bizitza osoan zehar %	Edozein droga kanabisa ezik %
Austria	69	49	21	8
Belgika	47	32	32	8
Txekiar Errep.	68	43	44	12
Danimarka	82	30	23	6
Finlandia	64	38	11	3
Frantzia	29	33	38	7
Alemania	61	45	27	10
Grezia	37	28	6	3
Italia	37	38	27	8
Herbehereak	46	31	28	6
Norvegia	54	28	9	3
Polonia	48	31	18	7
Portugal	28	28	15	7
Suedia	55	23	7	3
Erresuma Batua	68	29	38	9

<sup>1</sup> ESPADen 2003ko ikerketatik aterea (www.espad.org)

## 2. Zer da prebentzio unibertsala?

*Prebentzio unibertsala* adierazpenak zera esan nahi du: gazte guztien substantzia kontsumoa eragotzi edo atzeratzeko helburua duten jarduerak burutzea, gazteen arrisku profila edonolakoa izanda ere. Prebentzio unibertsalaren arabera, kontsumitzaile berrien guztizko kopurua gutxitzea da garrantzitsua. Prebentzio unibertsalak beste bi prebentzio mota osatzen ditu: *prebentzio selektiboa* (substantziak kontsumitzeko arrisku handia duten azpitaldeei zuzendua) eta *prebentzio indikatua* (substantzia kontsumoaren seinale goiztiarrak, jokabide nahasteak eta bestelako portaera arazoak erakusten dituzten gizabanakoei zuzendua).

Droga gehien kontsumitzen dutenak edo arrisku taldeak dira kalterik handiena jasateko arriskua dutenak; hala ere, talde horien garrantzia proportzionalki txikia da droga kontsumoak kaltetutako pertsona guztien artean. Bestela esanda, droga kontsumitzaile berrien gehiengoa "arrisku taldetzat" jotzen ez diren taldeetatik dator. Gainera, prebentzio unibertsala arrisku handiko gazteentzat ere onuragarria izan daiteke, nahiz eta bere eraginkortasunik handiena kontsumoaren hasiera atzeratzean datzan.

## 3. Eskola prebentzioaren garrantzia

Ikastetxeak gazteei zuzenduriko prebentzio unibertsalerako programak ezartzeko ingurunerik garrantzitsuenetako bat dira. Hasteko, ikastetxeek irispide unibertsala bermatzen dute, European jende guztia eskolara joaten delako gutxienez zortzi urtez. Bigarrenik, substantzien kontsumoaren kontrako babes faktore orokor eta garrantzitsuenetako batzuk ikastetxeek ematen dituzte, besteak beste alfabetatzea, lorpen intelektualak, lotura sozialak, arauak eta trebeziak. Hirugarrenik, ikastetxeak komunitateko beste sektore eta ordezkari batzuk erraz mobilizatzeke gai dira, esaterako gurasoak, udalerrriak, kultur elkarteak eta boluntarioak. Beraz,

ikastetxeak dira osasun publikoko programak, drogen prebentzioa barne, emateko ingurunerik aproposenak.

Duela gutxira arte, jokabideen aldaketari begira, ez zegoen inolako frogarik ikastetxeetan egiten ziren osasun hezkuntzako programen eraginkortasunari buruz. Azken 15 urteotan, ordea, prebentzioak ebaluazio zorrotzei egin behar izan die aurre. Ebaluazio horien emaitzak etsigarriak izan dira gehienetan, nerabeak tabakoa, alkohola eta beste droga batzuekiko babesteko ahalmenari dagokionez.

## 4. Eskola programa eraginkorrak

1980ko hamarkadaren amaieran, agerian geratu zen drogekin loturiko kalteei buruzko informazioa soilik ematen zuten eskola programak ez zirela eraginkorrak nerabeen portaera aldatzeko; ezta gazteen artean ezagutza handitzea lortzen zutenean ere. Hori azaltzeko teoria nagusia zera zen: arriskuei buruzko ezagutzak ez duela babesten, adibidez, berdinen taldean substantzien kontsumora daramaten eragin sozialei eusteko ahalmena garatzen ez bada (*erresistentzia trebetasunak*). Eredu hori tabakoaren kontrako prebentzioan erabiltzen zen nagusiki; izan ere, historikoki, tabakoa izan da substantzia hedatuena eta gizartean onartuena.

Geroago eredu zabaldu egin da, drogei buruzko ezagutzak eta ezetz esateko trebetasunak ez ezik, beste abilezia batzuk ere sartzeko (*bizitzarako trebetasunak* delakoak): erabakiak hartzea, helburuak finkatzea, estresa kontrolatzea, autoafirmazioa eta komunikazio gaitasunak, besteak beste. Izan ere, drogak kontsumitzeko gonbidapen bati zuzenean aurre egin beharra ez da ohikoegia nerabezaroran; aldiz, zentzuzko erabakiak hartzeko, norberaren iritzia defendatzeko edo taldeen arauak kritikatzeko beharra sarriago azaltzen da.

Arau sozialei dagokienez, zera ikusi zen: substantzien kontsumoa ohiko eta onartutzat jotzen duten haur eta nerabeek, aukera gehiago dituztela substantziok

kontsumitzen hasteko, iritzi hori ez duten adin bereko berdinen aldean. Beraz, programa batek zenbait tresna eduki behar ditu substantzien kontsumoaren maiztasun eta onarpenari buruz gazteek dituzten ideiak argitzeko; eta substantzia horien merkaturatzearen atzean dauden interesak argitzeko beste batzuk ere bai (*hezkuntza arauemailea*). Azkenik, eskola jarduerak komunitatean egiten direnekin uztartzen dituzten programek arrakasta aukera handiagoak dituzte isolatuta ematen diren eskola programek baino.

Laburbilduz, bizitzarako trebetasunei buruzko hezkuntza, hezkuntza arauemailea eta substantziei buruzko ezagutzen eskurapena bateratzen dituzten programei eragin sozial integraleko (ESI) programak deitzen zaie. Horrelako programak Europako herrialde askotan ezartzen dira, eta 2. taulan adibide batzuk daude<sup>2</sup>.

Gida honek gehien bat ukitzen duen "Unplugged" programa (ikus beheko paragrafoa), Europako hainbat herrialdetan aldi berean ebaluatu den doako programa bakarra da.

## 2. Taula. Substantzien kontsumoaren aurka Europako herrialdeetan ezarrita dauden eskola programen adibideak, ESI ereduaren oinarrituak

Herrialdea	Programaren izena	Adin taldea	Emaitzen Ebaluazioa (edozein mota)
Alemania, Suedia, Beste batzuk	Lions' Quest	10-15	Bai
Finlandia, Suedia	Uskalla/Våga	12-13	Ez
Grezia, Irlanda	On my own two feet	12-15	Ez
Italia	Nuove tecnologie della comunicazione	15-19	Ez
Norvegia	Folkeaksjonen mot Narkotika's	10-12	Ez
Portugal	O atelier de prevenção	13-18	Ez
Espainia	Ordago	12-16	Bai

## 5. "Unplugged" eta EU-Dap proiektua

Eskola prebentzioko programen ebaluazio zientifiko gehienak Ipar Amerikan egin dira. Europan, duela gutxira arte, sen onaz edo atzeritik datozen frogez fidatu gara

ikastetxeetan ezarri beharreko programak aukeratzeko.

1190eko hamarkadatik, eskola prebentzioko programak ebaluatzeko bi ahalegin nagusi egin dira. Tabakoaren Kontrako Eruopako Prebentzio Esparru

<sup>2</sup> Herrialdeei buruzko informazio gehiago DDEBren web orrialdean eskura daiteke, [www.emcdda.europa.eu](http://www.emcdda.europa.eu) helbidean

Metodoa (ESFA)<sup>3</sup> izeneko proiektuak sei herrialde hartzen zituen bere baitan bakoitzak bere eskola programarekin hartzen zuen parte, denek “jardunbide egoki” batzuk partekatzen zituztelarik.

2003an, Europar Batasuneko zazpi herrialdek lankidetzan proiektu berri bat abiarazi zuten, EBko Droga Kontsumoaren Prebentziorako ikerketa delakoa (EU-Dap). Proiektuaren helburua zera zen: substantzia guztien kontsumoa eragozteko eskola programa oso estandarizatu bat ebaluatzea.


Proiektua “Unplugged” deitzen da ingelesezko bertsioan, eta ESI programa baten osagai gomendatu guztiak dauzka.

2004-2005 ikasturtean probatu zen 78 ikastetxetan (3457 ikasle), eta beste 65 ikastetxek (3532 ikasle) kontrol taldea osatu zuten. Programa 12-14 urte arteko ikasleei dago zuzendurik, eta irakasleak trebatzaile gisa hartzen du parte.

Programak 12 ordu eta 12 asteko iraupena du gutxi gorabehera, ordu bakoitza eskola bati dagokiolarik.


Programa amaitu eta lau hilabetera, hau da, epe laburrera, “Unplugged”en ebaluazioa egin zen. Emaitzek substantzien kontsumo aurreratuarekin loturiko portaerak nabarmen gutxitu zirela erakutsi zuten: Eguneroko tabako kontsumoak zein alkohol intoxikazioek %30 egin zuten behera, eta kanabis kontsumoa %23 jaitzi zen (ikus 1-3 irudia). Eta are itxaropentsuagoa dena: epe luzeagora egindako ebaluazio baten aurretiko datuek erakutsi dutenez, programaren ondorioek gutxienez urtebetez irauten dute! Ondorioen tamainari dagokionez, jardunbide egokiekin loturiko beste ESI programa batzuek erdietsi dituztenen parekoak dira.

**1. irudia. Ikasleen eguneroko tabako kontsumoaren prebalentzian gertaturiko aldaketak azken 30 egunetan, “Unplugged” programa eta kontrolak ezarri ondoren, 2005eko maiatza**




3. deVries, H., F. Dijk, et. al. (2006). “The European Smoking prevention Framework Approach (ESFA): effects after 24 and 30 months.” Health Educ Res 21 (1): 116-132

**2. irudia. Ikasleen ohiko alkohol intoxikazioaren prebalentzian gertaturiko aldaketak azken 30 egunetan, "Unplugged" programa eta kontrolak ezarri ondoren, 2005eko maiatza**



**3. irudia. Ikasleen kanabis kontsumoaren prebalentzian gertaturiko aldaketak azken 30 egunetan, "Unplugged" programa eta kontrolak ezarri ondoren, 2005eko maiatza**



Probako bertsioa ebaluatzerakoan antzemandako arazoak kontuan hartuta, orain “Unplugged” programaren bertsio berrikusi bat dago eskuragarri. Aldaketa gehienak unitate batzuen iraupenarekin zeuden lotuta.

Programaren ebaluazioari buruzko xehetasunak proiektuaren web orrialdean ikus daitezke ([www.eudap.net](http://www.eudap.net)). Orrialde hori herrialde partaide bakoitzaren web orrialdearekin dago lotuta.

## 6. Zer espero dezakegu?

Nolako onurak espero ditzakegu “Unplugged” bezalako ESI programa bat eskala handian ezarriz gero? Hasteko, argi geratu behar da ez dagoela %100 eraginkorra den prebentzio programarik edota bestelako esku hartzerik (adibidez, tratamendua). Programa desberdinen onurak alderatzeko, nahi ez den gertakizun bat saihesteko (adibidez, ohiko edale bihurtzea) esku hartzean parte hartzen duten pertsona kopuruari begiratu behar zaio. Kopurua zenbat eta txikiagoa izan, esku hartzea orduan eta errentagarriagoa izango da.

### Ikasleentzako onurak

- Programa 13 urteko 30 ikasle inguruko gela batean irakatsiz gero, seguruenik, ikasle bat eguneroko erretzaile bihurtzea galaraziko dugu, eta beste batek duela gutxi alkohol intoxikazioa jasatea ere bai. Emaizta txikiak dirudite, baina ez da horrela, kasu hauekin alderatuz gero: hipertentsio neurritsuak eragindako heriotza, iktus edo miokardio infartu bat galarazteko, 128 pertsona tratatu behar dira<sup>4</sup>, eta bularreko minbiziak eragindako heriotza bat galarazteko, 2000 emakumeri mamografiak egin behar zaizkie 10 urtez<sup>5</sup>.

---

4 Sackett DL, Haynes RB: Summarizing the effects of therapy: A new table and some more terms. Evidence-Based Medicine 1997;2:103-104

5 Gøtzsche PC, Nielsen M. Screening for breast cancer with mammography. Cochrane Database of Systematic Reviews 2006, Issue 4. Art. No.: CD001877. DOI: 10.1002/14651858.CD001877.pub2.

- Programa bi gelatan irakatsiz gero, emaitza hori bikoiztu ez ezik, ikasle batek kanabisa probatzea ere eragotziko dugu seguruenik.
- Programaren ondorioak batzuetan desagertu egiten dira denborarekin. Hala ere, substantzien kontsumoaren hasiera atzeratzen den urte bakoitzeko, drogen kontsumo problematikoak gutxitu egiten da epe luzera.
- Gizarte trebetasunak bereganatzen dituzten ikasleek drogak kontsumitzeko aukera txikiagoa dute, eta ez hori bakarrik: portaera problematikoak edo bestelako arriskuak (nahi gabeko haurduntzak edo eskola jazarpena) izateko joera txikiagoa dute.
- Trebezia interaktiboetara zuzendutako programek ere, gelako giroa hobetzen dute eta arazo psikologikoen eta bestelako arrisku portaeren kontra babesten dute.

### Ikasleen familientzako onurak

- ESI programa gehienetan, ikasleen gurasoek ere aktiboki hartzen dute parte. “Unplugged”en, adibidez, guraso eta zaintzaileek bilerak edo tailerrak egiteko gaiez osaturiko baliabide bat dute eskura. Nerabeekiko harreman gatazkatsuei aurre egiteko informazio baliagarria eta aholkuak ere eskura ditzakete, aldezturik eskatuz gero, kontaktu zentroetan edo [www.eudap.net](http://www.eudap.net) helbidean.
- Guraso eta zaintzaileei beren seme-alaben eskola bizitzan gehiago parte hartzera animatuko zaie.

### Ikastetxeentzako onurak

- Ikastetxeak zorrotz ebaluatu den kalitate handiko prebentzio programa bat erabiliko du
- Trebatutako irakasleak oso baliagarriak izango dira, baita ohiko irakaskuntzan ere, ESIko teknika pedagogikoak beste irakasgai batzuetan ezar daitezkeelako.
- ESI programa gehienetan metodo multidiziplinarrari esker, irakasleen arteko lankidetzak indartuko da.

### **Komunitatearentzako onurak**

Gainerako baldintza guztiei eutsiz gero, ongi ezarritako oinarriko prebentzio eraginkorrak onura hauek dakartza:

- substantzien kontsumoa eta harekin erlazionatutako portaera problematikoak gutxitzen dira
- bizitzak salbatzen dira, minusbalioak murrizten dira eta diru gutxiago gastatzen da tratamenduetan eta legea betearazten

- Zehaztasunez ikertu ez den arren, drogamenpekotasun bat tratatzearen kostua handiagoa da jendeak drogak kontsumitzeari uko egiteko prebentzioak dakarrena baino, bai osasun sistemarentzat eta bai gizabanakoarentzat.

*Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus gomendatutako irakurgaien eta web orrialdeen zerrenda (8. tresnan).*

## **1. kapituluia – ESI programa bat herrialde edo eskualde batean onestea**

Kapitulu hau osasun publikoaren eta hezkuntzaren arloan erabakiak hartzen dituztenei dago zuzenduta. Izan ere, pertsona horiek droga kontsumoaren kontrako prebentzio estrategia eraginkorrak sustatzeko betebeharra dute, Herrialde edo Eskualde mailan. Eragin sozial integraleko (ESI) programa eraginkorrak ezartzearen onurak eztabaidatzen dira hemen, osasunaren eta hezkuntzaren ikuspuntutik. ESI programa eraginkor bat onetsi eta sustatzeko gomendio erabilgarriak eta ezartzeko modukoak azaltzen dira, Nazio edo Eskualde mailatik hasi eta Eskola mailaraino. Behin onetsita eta sustatuta, ESI programek agintari lokal edo zentralen babesa behar dute, behar bezala ezarriak izan daitezzen.

### **1.o Zergatik agintarien buruzagitzatza?**

Gobernuek aukera paregabea dute droga kontsumoaren prebentziorako eskola programak abiarazi eta babesteko; programa horiei esker, nerabeek substantzien kontsumoari buruzko hezkuntza jasotzen dute, eta bizimodu osasuntsua eramateko trebeziak garatzen dituzte. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) hurrengo egitera animatzen gaitu: *“gizartea eta kulturaren ikuspegitik onargarriak diren programak nahiz zerbitzuak garatzera, nerabe eta gazte guztien osasun eta garapen premiak betetzeko, familien, publiko orokorraren, osasunaren nahiz beste sektore garrantzitsuen eta gazteen partaidetza bermatuz.”*<sup>6</sup>

Nazio edo eskualde agintariei, prebentzioaren arloan lan asko egiten ari

direla iruditzen zaie; baina kasu gehiegitan, programak eta osasun ekimenak modu ez estandarizatuan ematen dira, osatu gabe edo ad-hoc. Koordinazio falta horren ondorioz, prebentziora zuzendutako baliabideak eta ahaleginak sarritan ez dira eraginkorrak izaten. Horrek albo ondorio negatiboen arriskua ere handitzen du, edukiak eta, batez ere, informazio kritikoa ez direnean aurreikusi bezala ematen. Behar dena zera da: metodo estandarizatu eta ongi antolatu bat, buruzagiak (esaterako, irakasleak) konprometitu eta prestatuko dituen, ikasleen osasunean eragina izan dezaten. Horrek, gainera, irakasleek programarekiko duten jarrera hobetuko luke (ez dute drogei eta prebentzioari buruz dena jakin behar horrelako protokolo bat emateko); era berean, ikastetxeko bateko irakasle asko trebatu eta konprometitu beharrak dakartzan baliabide galerak eragotziko lituzke.

### **ESI programa bat ezartzeak erantzukizunez jokatzeari esan nahi du**

ESI programa bat herrialde bateko ikastetxe guztien curriculumean sartuz gero, gazteen osasuna hobetu egingo da; gainera, nazio edo eskualde agintariak, droga kontsumoa murrizteko zientzian oinarritutako ekintzak burutzen ari diren EBko Estatuaren artean kokatuko dira. Bestalde, ESI programa eraginkor bat ezartzeak sinesgarritasun handiagoa emango dio gobernu agintaritzari.

### **Drogen prebentziorako programazio eraginkor baten adierazlea**

Portaerak aldatzeko duen gaitasuna frogatuta dagoenez, ESI programa bat herrialdeko edo eskualdeko estandar gisa edo curriculumaren eskakizun gisa hartzen bada, agintaritzaren eskudunak adierazle fidagarri bat edukiko du prebentzioa ikastetxeetan nola ezartzen den ikusteko. Programa bakar batek kalitate kontrola ematen du, eta “Unplugged”en kasuan, ezartzen ari den prebentzio programa frogetan oinarrituta dagoela bermatzen du.

---

6 Osasunaren Mundu Erakundeak. Munduko Osasunari buruzko 42. Biltzarra The health of youth. WHA42.41. Hemen eskura daiteke: [www.who.int](http://www.who.int). 2007ko urtarrilaren 23an atzitu.



## 1.1 Osasun Publikoko Erabaki Hartzaileen Buruzagitza

Osasun publikoko erabaki hartzaileek eragina izan dezakete haur eta gazteen osasunarengan, hezkuntza sistemarekin lankidetzan (kasu idealetan), osasuna babesteko eta sustatzeko estrategia integralak ezarriz. Estrategia integralek, normalean, politika publiko mesedegarriak, informaziorako sarbidea eta hezkuntza hartzen dute barne. Informazioa eta hezkuntzaren eremuan, ESI programek haurrak eta gazteak prestatzeko balio dezakete.

Herrialde baten politika, legeria edota dekretuetan, osasun hezkuntza osasuna sustatu eta babesteko ezinbestekoa dela jaso daiteke. “Unplugged” eskola prebentzioko tresna eraginkorra eta ezartzen erraza da, 12-14 urte arteko gazteei zuzendua, eta osasun publikoaren prebentzio estrategiak osa ditzakeena. Osasun publikoko politikak sustatzeko modu egokien adibide bat OMEren Tabakoa Kontrolatzeko Esparru Ituna da (WHO-FCTC). Itun horrek aurrerapenak dakartzaten (adibidez, tabakorik gabeko eremu publikoak) legegintzako eta programazioko funtsezko ekimenak azpimarratzen ditu, eta tabakoaren kontrako jarrera eta balio sozialak indartzen.<sup>7</sup>

ESI programak portaera osasungarriak eta norbera babestekoak bultzatzeko ematen dira eskola ingurunean; beraz, baliotsua izango litzateke osasun publikoaz eta hezkuntzaz arduratzen diren nazio edo eskualdeko erabaki hartzaileek elkarrekin lan egitea, ezarpen zabala bermatzeko.

## 1.2 Hezkuntzako Erabaki Hartzaileen Buruzagitza

Nazio edo eskualdeko hezkuntza agintariak, haur eta gazteak hezteko modurik onenak ezartzeko betebeharra dute, ingurunea, irakaslea eta informazioa

---

<sup>7</sup> Osasunaren Mundu Erakundea. Tabakoa Kontrolatzeko Esparru Ituna. Hemen eskura daiteke: [www.who.int/tobacco/framework/download/en/index.html](http://www.who.int/tobacco/framework/download/en/index.html)

barne. Kasu horietan, hezkuntzaz arduratu ez ezik, agintariak ikasleen osasuna eta ongizatea ere bermatu behar dute; ongizate hori, gainera, ezinbestekoa da curriculumeko gaiak ongi ikasteko. Herrialde baten curriculum orokorrean, baldin badago, ohiko irakasgaiak (matematika eta zientzia, adibidez) gidatzeko arauak ematen dira sarritan, baina droga kontsumoaren prebentziorako ez da eskakizunik egoten.

Azken urteetan, Europako herrialdeek ahaleginak egin dituzte ikastetxeetan prebentzio programak zabaltzeko. Europako droga arazoaren egoerari buruzko azken Urteko Txostenaren arabera<sup>8</sup>, badirudi programetan oinarritutako prebentzio metodoak nagusitzen ari direla eskola prebentzioaren barruan. *“Programetan oinarritutako prebentzio irakaskuntza estandarizatua dakar berekin, saio kopuru jakin batean antolatua; saio bakoitzak zehazki definitutako edukiak ditu, irakasle zein ikasleentzako material xehatuekin batera. Horrek jarraipena eta ebaluazioa errazten du eta esku hartzeen zehaztasuna, leialtasuna eta sendotasuna handitzen du, kalitate handiko irakaskuntza bermatuz”*. “Unplugged”ek eta gainerako ESI programek irizpide horiek guztiak betetzen dituzte.

Eskola hezkuntza, eta batik bat drogen prebentziorako gelako programak, oso itxaropentsuak dira gazteen droga kontsumoa eragotzi edo atzeratzeko, eta osasun publikoko politikekin eta heldu guztien portaera osasungarriarekin uztartu beharko lirateke.

Ikastetxeetan prebentzio programak ezartzearen garrantzia aitortuz, Europar Batasuneko Kontseiluak gonbidapena luzatzen die Estatu Kideei (5099/01/02 Cordroque 4 1. Berr.), *“osasuna sustatzeko/drogen kontsumoa eragozteko programak ezar ditzaten ikastetxe guztietan”*, eta *“programa horien garapena bultzatzeko”* eskatzen die, *“beharrezkoa izanez gero, horretarako*

---

<sup>8</sup> EMCDDA, 2006 Europako droga arazoaren egoera. Hemen eskura daiteke: [www.emcdda.europa.eu](http://www.emcdda.europa.eu)

*dauden gobernu baliabideak eta antolamenduzko egiturak egokituz, aipatu helburua erabat bete dadin.*” Droga kontsumoa eskolatik prebenitzea erronka erakargarria da agintari koordinatzaile eta exekutibo batentzat.

Laburbilduz, ezinbestekoa da nazio edota eskualde agintariak “Unplugged” bezalako ESI programak babestea, droga kontsumoaren prebalentziari aurre eginez haurren osasuna eta irakaskuntza hobetzeko.

### **Unplugged- drogen kontsumoa prebenitzeko ESI programa eraginkorra**

“Unplugged” EBko hainbat Estatutan garatu eta probatu den mota horretako lehen programa da. EBko Droga Kontsumoaren Prebentziorako Probak frogatu duenez ([www.eudap.net](http://www.eudap.net)), ESI programek gazteen tabako, alkohol eta bestelako drogen kontsumoa eragotzi edo atzera dezakete. Ikastetxeetan ESI programen ezarpen integrala eta goi mailakoa bermatzeko, funtsezkoa da nazio edota eskualde agintarien buruzagitza.

### **1.3 ESI programa fidagarri bat aukeratzea**

ESI programak fidagarriak direla ziurtatzeko, ikus mesedez 1. Tresna; bertako irizpide zerrenda erabil dezakezu ESI programa egokiena aukeratzeko. “Unplugged” programa Europako prebentzio programa eraginkorra da; erabilerraza da, erabiltzeko prest dago eta kostu txiki batekin ezar eta gara daiteke.

Ikastetxean gaur egun prebentzio programarik baldin badago, berrikusi egin daitezke ESI metodoa sartzeko; eta ebaluazioaren ondoren, programa hobetuak ezar eta erabil daitezke, kostu baxu batekin. ESI programen ezarpenak ondorio gehiago ekar ditzake beste portaera arriskutsu batzuentzat.

“Unplugged” egun EBko beste herrialde batzuetan ezartzen ari den programa aurrez prestatu bat da, eta Europako Batzordeak finantzatu duenez, doan eskura dezakete Estatu Kide guztiek.

Programa ezartzeko, irakasle bat prestatu behar da eta ordubeteko 12 eskola sartu behar dira gelako ohituretan eta urteko egutegian. Beti bezala, programa tokian tokiko ingurune kulturalera egokitzeko beharra egon daiteke. “Unplugged” programaren deskribapen zehatzerako, ikus Sarrera.

Droga kontsumoaren prebentziorako edozein ekimen ezartzeko orduan, errentagarritasuna hartu behar da kontuan. “Unplugged”en abantaila handienetako bat zera da: ez dago espezialista garestien beharrik programa ezartzeko, ikasleek erraz eman dezaketelako. Kostu gehigarri bakarria irakasleentzako trebakuntza labor bat da.

Irakasleak behar den oinarri teoriko eta praktikoa lortu eta ESI programak orokorrean ezagutzen dituenean, portaera arriskutsuen prebentzioari buruzko edozein ezagutza errazago bereganatuko du.

### **1.4 Nazio edo Eskualde Agintariak ESI programak ikastetxeetan sustatzeko moduak**

Erabaki hartzaileek ESI programak ezarriko dituztela behin erabakita, hurrengo pausoa zera da: eremu guztiak hartzen dituen erakunde gisa jokatzeko, eskolak konbentzitu eta haiei laguntza emateko, programa modu eraginkor eta zehatzean ezar dezaten. EBko ikastetxeetan drogen prebentziorako dauden programen egoera berrikusterakoan, Drogen eta Drogamendekotasunaren Europako Behatokiak zera nabarmendu du: *“Burututako eskola prebentzioaren emaitzarik itxaropentsuenak, indarra, egitura eta kalitateari dagokionez, **eskola prebentzioari berariaz eta helburu zehatzekin heldu dioten estrategia nazionalak** dituzten herrialdeetan lortu dira, eta prebentzioaren irakaskuntza nahiz finantziazioa logistikoki ongi antolatu duten herrialdeetan.”*<sup>9</sup>

9 EMCDDA, 2006 Europako droga arazoaren egoera. Hemen eskura daiteke: [www.emcdda.europa.eu](http://www.emcdda.europa.eu)

Beraz, frogetan oinarritutako ESI programak, adibidez “Unplugged”, burutuko direla bermatzeko, nazio edo eskualde agintaritzak urrats estrategiko batzuk eman beharko lituzke.

### **Programa egokia sustatzea (erraza da hanka sartzea)**

Prebentzio jarduerak kaltegarriak izan daitezke, programa eraginkorren bereizgarri diren frogetan oinarritutako elementuak falta bazaizkie. Adibidez, frogatuta dago epe laburrerako programak, isolatuta daudenak edo “moralizatzaileak” ez direla eraginkorrak; are gehiago, drogekiko interesa piztu dezakete gazteengan.<sup>10</sup> Astialdiko ekintzek eskola ingurunearen eginkizun babeslea indartzen dute, baina ezin dira prebentzio programatzat hartu.

Egitura zehatza duen programa batek abantaila hauek ditu edozein metodo “holistikoa” eta integratu baten aldean: errazagoa da kalitatea eta egitura bermatzea, eta baita emaitzak ebaluatzea ere.

Nahiz eta batzuetan protokoloak tokian tokiko eskola inguruneetara egokitu behar diren, protokoloetan oinarritutako “Unplugged” bezalako programek (eduki estandarizatuak, ongi definituak eta zehazki proposatuak dituzte) izugarri errazten diete irakasleei prebentzio lana. Izan ere, programak irakaskuntza plan zehatza eta aurrez ikusteko modukoa eskaintzen die, erlazionatutako trebakuntza eta materialekin batera.

Eskola prebentzioko programak sustatzen dituen arren, OMEk zera gomendatzen du: ikastetxeei alde aurretik probatutako programa eraginkorrak ematea, drogen kontsumoaren hasiera eragozteko eraginkorrak diren elementuekin bat datozenak.<sup>11</sup>

---

10 EMCDDA, 2002 Drugs in focus Issue 5, Issue 5, Drug Prevention in EU schools. Hemen eskura daiteke: [www.emcdda.europa.eu](http://www.emcdda.europa.eu)

11 Hawks D, Scott K, McBride N. (2002) Prevention of psychoactive substance use : a selected review of what works in the area of prevention. Geneva, WHO 2002. Hemen

### **Kalitate hobean arreta jartzea**

“Unplugged”en emaitzak frogetan daude oinarrituta, eta emaitza horiek ezagutzera ematea oso garrantzitsua da ESI oinarritutako prebentzio programak zabaltzeko. Hala ere, prozesuen ebaluazio eta txostenek informazio garrantzitsua ematen dute prebentzio programen irismenari buruz; horrez gain, ezarpenen zehar sortutako arazoak nabarmentzen dituzte eta partaide guztiei feedbacka ematen diete, bai zuzeneko (irakasle eta ikasleak) eta bai zeharkako (gurusoak, komunitatea). Hortaz, ESI programen ezarpenaren prozesua eta emaitzak nazio edo eskualde mailan jakinarazteak programok zabaltzen laguntzen du, eta beste irakasle eta ikastetxe batzuk drogen prebentzioari heltzera animatzen ditu. 4. tresnak programa bat ezartzeko eta ebaluatzeko orduan kalitatea nola kontrolatzen den erakusten du.

### **ESI programari Onespren Zigilu Ofiziala jartzea**

ESI programak ikastetxeetan ezartzeko, garrantzitsua da drogen prebentziarako eskola programa estandarizatuak berariaz gomendatzen dituzten agiri ofizialak argitaratzea, edota informazio hori gobernuaren argitalpenetan azaltzea. Argitalpenean programa horien xedeak, balizko emaitzak, ezarpenaren esparruari buruzko informazio praktikoa eta balizko finantzazio baliabideak aipatu beharko liriteke. ESI programak osasun curriculum orokorrean sartzeko aukera ere aztertu beharko litzateke.

## **1.5 Ikastetxeei laguntzea**

Programa bat onetsi eta sustatu ondoren, oso garrantzitsua da ikastetxeetan berau ezartzen laguntzea. Azpian nazio edo eskualde agintari batek ikastetxeei laguntzeko modu batzuk iradokitzen ditugu.

### **Curriculumaldatzea ESI sartzeko**

ESI programak ikastetxeetan zehar zabaltzeko, eskola agintari eskudunek

---

eskura daiteke: [www.who.int/entity/substance\\_abuse/publications/en/prevention\\_substance\\_use.pdf](http://www.who.int/entity/substance_abuse/publications/en/prevention_substance_use.pdf)

ESIren abantailak azpimarratu beharko lituzkete, besteak beste, frogetan oinarritutako eraginkortasuna eta ezarpenaren onurak. Horrela, ikastetxeei erakargarriak eta eraginkorrak irudituko litzaizkieke programok, eta azkenean hartu egingo lituzkete.

Beharrezkoa izanez gero, eskola agintaritzetako erdi mailako funtzionarioek aldaketak egin ditzakete ohiko osasun curriculumean edo egungo programetan ESI sartzeko -badirudi eragin handia dutela berrikuntzen onarpenean<sup>12</sup> -, eta ikastetxe sareek aldaketa horiek bultzatzea (web orrialde, irakasle elkarte, biltzar eta abarren bidez).

### **Ikastetxeetan ezarpena erraztea**

“Unplugged” bezalako ESI programak, ikastetxe bateko irakasleek erraz zuzen ditzaketen prebentzio jarduerak dira. Prestakuntza aurrebaldintza garrantzitsua den arren, irakasleen motibazioa eta konpromisoa dira faktore funtsezkoenak.

Ildo horretatik, ezinbestekoa da irakasleei trebatzeko eta ezarpenean zehar laguntza jasotzeko aukera ematea, programako materialak eta informazio garrantzitsua erraz eskura ditzaketela ziurtatzea, eta drogen prebentzioarekiko duten konpromisoa eskertu eta aitortzea. *“Irakasleei ikastetxeko buruen laguntza eskaini beharko litzaieke, aholku teknikoek eta arrakastak nahiz arazoak partekatzeke sare bat sortzeko aukerez gain.”*<sup>13</sup> Gainera, eraginkorra dela frogatu den programa bat ezartzeak esanahi eta balio handiagoaz hornitzen ditu irakasleek egiten dituzten ahaleginak. Azkenik, irakasleak ez lioke uko egin behar bere hazkunde profesionalari. Irakasleen gaitasunen etengabeko hobekuntza sustatu

12 Rogers, E.M. (2002) Diffusion of preventive innovations. *Addict Behav* 2002;27:989-993.

13 Drogei eta Delinkuentziari buruzko Nazio Batuen Bulegoa, drogen kontsumoaren prebentziorako Eskola Hezkuntza. Drogei eta Delinkuentziari buruzko Nazio Batuen Bulegoa; New York, 2004. Hemen eskura daiteke:

[www.unodc.org/youthnet/en/youthnet\\_action\\_prevention\\_school.html](http://www.unodc.org/youthnet/en/youthnet_action_prevention_school.html)

behar da. Irakasle baten prestakuntzari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, ikus 3. tresnako aholkuak.

### **Ezarpenean zehar laguntza ematea**

ESI programaren hasierarako prestakuntza emateaz gain, nahitaezkoa da programa irakatsiko duten irakasleei laguntzea, kalitate handiko ezarpen bat bermatzeko eta sor daitezkeen arazoak konpontzeko.

Laguntzarako telefono zenbaki bat eskaini, edota helbide elektronikoa bat, osasun publiko edo hezkuntzako agintari sinesgarri batzuek jarritako langileez hornitua; langileak irakasleen kontsultak artatzeko, drogei buruzko informazio gehiago emateko eta sor daitezkeen ezusteko arazoei heltzeko gai izan behar dira. Ikasleak deribatuzko sistema bat sortu, drogekin loturiko arazo edo mendekotasun larriak antzematen direnerako. “Unplugged” prebentzio programa eraginkorra da orokorrean; hala ere, dagoeneko alkohola, tabakoa eta bestelako drogak kontsumitzen hasi diren gazteentzat beharbada ez da hain baliagarria izango. Azkenik, EU-Dap web orrialderako esteka jarri ([www.eudap.net](http://www.eudap.net)), edo helbide hori aipatu, nazio edo eskualde mailan sortutako web egiturei laguntzeko.

ESI programa baten eraginkortasuna handitzeko, eremu guztiak hartzen dituzten baliabide lagungarriak sar daitezke. Horrek zera esan nahi du:

- Osasunaren aldeko politika bat sortzea, legezko drogei buruzko ingurumen estrategiak ukitzen dituen (kerik gabeko eremu publikoen legeria edo alkoholarekin loturiko mugak).
- Hedabideen laguntza jasotzea, prebentzio ekimenen gaiari buruz atentzia emateko
- Drogarik gabeko ikastetxeen aldeko politikak bultzatzea eta betearaztea
- Drogarik gabeko gazteriaren aldeko komunikazio kanpaina bat abiaraztea, eskola programak osatzeko

### **Programari eustea eta berau ebaluatzea**

Programaren ezarpenari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, osasun publikoaren eta hezkuntzaren arloko erabaki hartzaileek programari epe luzean eutsi beharko liokete. Programaz arduratzen den agentziarekin harremanetan behin jarrita, oso erraza da hari eustea, hurrengo urteetan ikastetxe gehiagoren partaidetza lortuz eta programa zabaltzen jarraituz. Trebatutako irakasleak tokiko baliabide bihur daitezke beste irakasle batzuentzat, prestatzaile bihurtuz, esperientziak partekatuz eta eskola giro on bat sortzen lagunduz.

Programa epe luzera mantendu nahi bada, erabaki hartzaileek haren ezarpena kontrolatu beharko lukete, programa zenbat ikastetxe edo zenbat geletan ezarri den eta abar ebaluatuz, 7. tresna bezalako jarraipen metodoak erabiliz.

#### **ESI programa bat herrialde edo eskualde batean nola abiarazi:**

- a) Programa babes dezakeen politika bat dagoela ziurtatu
- b) Komunikazio estrategia bat sortu, besteak beste prentsa jakinarazpenak eta web orrialdeak barne hartzen dituenak
- c) Toki agintari batek materiala aztertu eta onetsi behar du

### **1.6 Ikastetxeei lagun diezaieketen beste Kide batzuk**

Gobernuz Kanpoko Erakundeek (GKEek) eta drogen prebentziorako bestelako erakundeek gazteak ahalik eta osasuntsuen egotea nahi dute, eta beraz, ESI programa ikastetxeetan zabaltzen lagun dezakete.

EU-Dapen lehenengo fasean, GKEez eta gobernu agintariez osaturiko sare europar bat sortu zen. Sareko kideen artean, “Unplugged” programa garatu eta ebaluatu zuten prebentzio arloko adituak daude. Sare honek laguntza eskaintzen du “Unplugged” zabaltzeko eta ezartzeko (informazio gehiago [www.eudap.net](http://www.eudap.net) helbidean)

## 2. kapitulua - ESI programak Ikastetxean sartzea

Kapitulu hau zuzendariei dago zuzendurik, eta ESI programak ikastetxeetan arrakastaz ezartzeko gomendioak ematen ditu. Aholkuek ikastetxearen gogoaztertzea, ESI programa bat abiarazteko prestatzea eta ekimena ezarri nahiz ebaluatzea hartzen dute barne. Kapitulu hau irakurri ondoren, zuzendariak hobeto prestatuta egongo dira ESI programak beren ikastetxeetan abiarazteko.

### 2.0 Ikastetxeen konpromisoa osasun hezkuntzarekiko

Europako ikastetxe gehienek curriculumean zeharreko gaiak irakasten dituzte, irakasgaiekin zuzeneko loturarik ez duten trebeziak garatzeko asmoz; gai horiek transferentziarako potentzial handia dute, eta izugarri baliagarriak dira eguneroko bizitzan. Europako herrialde askotan, osasun hezkuntza, gorputz edo kirol hezkuntza eta bizitzarako jarrerak irakasten dira batez ere <sup>14</sup> <sup>15</sup>, sarritan derrigorrezko gai gisa eta batzuetan osasun hezkuntzako ikastaro bereizi batean. Hezkuntza jarduera horiek eskola agintari zentral eta lokalaren adierazleak betetzen dituzte; gainera, ikastetxearen bokazioa eta tokiko komunitatearen lehentasunak islatzen dituzte.

Izan ere, osasun eta eskola agintari zentralek, iritzi publikoaren presioaren eta komunitateak arriskuekiko duen pertzepzioaren ondorioz, legeak, agiriak eta jarraibideak sortu dituzte, eskola hezkuntzak ikasleen artean arrisku portaerak saihesteko bete behar duen eginkizunari buruz. Hurrengo alderdiak

---

14 Adituen Europako biltzarra, gai honi buruzkoa: curriculumean zeharreko irakasgaiak bigarren hezkuntzan, Biltzar aurreko agiria Maes B. 2001.

15 Curriculumean zeharreko irakasgaiak bigarren hezkuntzan. CIDREEk argitaratua (Europako Hezkuntzaren Arloko Garapen eta Ikerketarako Erakundearen Partzuergoak). 2005eko martxoa. Web orrialdea: [www.cidree.org](http://www.cidree.org).

arlotan pertsonalean eta gizarte nahiz osasun hezkuntzaren arloan zeharkako gaiak arrakastaz ezartzearekin erlazionatu dira:

- ikastetxearen xedea ikasleen garapen kognitiboa, soziala eta pertsonala lortzea da;
- hezkuntza ikuspegiak eta helburuak ongi azalduta daude eta interesdun guztiek ezagutzen dituzte;
- erabakiak partaidetzaren bidez hartzen dira eta
- ikastetxeak autoebaluaziorako ahalmen handia du eta berrikuntzak egiteko prest dago.

Ikastetxe batek “Unplugged” bezalako ESI programa bat urteko ikasketa planean sartzeko aukera aztertzen badu, goian aipatutako ezaugarriak betetzen dituela esan nahi du. Horrez gain, osasunari begira gurasoek nahiz komunitateak egiten dizkioten eskariak bete ditzakeela esan nahi du, eta osasuna sustatzen duen ikastetxe osasuntsuagoa bihurtzeko daitekeela.

Dakartzaten onurak alde batera utziz, ESI programak erraz batera daitezke zeharkako beste gai batzuekin. Are gehiago: programa horiei esker irakaskuntza eta ikaskuntza interaktiboa bultzatu daiteke, ongi definitutako unitateak erabiliz.

25. orrialdeko irudiak ESI programak ezarri aurretik, ezarpenen zehar eta ondoren bete behar diren baldintzak jasotzen ditu. Programei eusteko ideiak eta ikastetxeak gidatzeko tresnak ere azaltzen dira.

### 2.1. Ingurunea aztertzea, ezarpen arrakastatsura daramaten faktoreak identifikatzeko

#### Irakasleak

- Gutxienez bi irakasle motibatuta daude prebentzio jarduera egituratuak ezartzeko, eta ezarri beharreko jarduerarekiko duten berotasuna zabal dezakete
- Irakasleei prestakuntza ikastaroetan parte hartzen uzten zaie

## **Curriculum**

Derrigorrezkoak ez diren irakasgaiak edota normalean esleitzen zaien denbora urria gainditzen duten irakasgaiak ezartzerakoan, gehien aipatzen diren arazoak hauek dira: ordutegiaren mugak eta gehiegizko irakaskai kopurua. Beraz, denbora mugak gainditzeko ahalmena erabakigarria da. Gutxienez, hurrengo egoeretako bat posible izan beharko litzateke:

- Ikastetxeko programek eta irakaskuntza jarduerak, osasun hezkuntzari buruzko ordu batzuk hartzen dituzte barne edo barne har ditzakete, eta ordu horietan ESI programa bat sar daiteke
- Ikastetxean ez badago osasun hezkuntzarako ordurik, programa hainbat diziplina emateko (zientzia edo gizarte ikasketak, adibidez) erabiltzen diren orduetan sar daiteke
- Programa irakaskai desberdinez arduratzen diren bi irakaslek edo gehiagok ematen badute, ohiko ordutegia mantentzeko daiteke.

## **Epe luzera begiratzea**

- Ikastetxea prest dago programaren ezarpena gutxienez ikasturte osoan zehar babestera, eta beharbada hurrengo urteetan ere bai
- Ikastetxeak programa ebaluatzeko asmoa du, bere kalitatea edo ezarpena hobetzeko xedearekin
- Trebatutako irakasleak tokiko baliabide bihur daitezke beste irakasle batzuentzat

## **2.2 ESI programa bat ezartzea**

### **Ingurunea**

- Komunitateak ezagutzen du OMEk adierazitakoa; alegia, ikastetxeek osasuna sustatzeko gutun bat sortu beharko luketela (misio adierazpena)
- Nerabeen osasunerako arrisku faktoreei buruzko kanpainak egin dira hedabideetan
- Eskualdeko edo tokiko agintariak prebentzio jardueretarako interesa dute
- Ikastetxeak "misio adierazpen" bat dauka, osasuna sustatzeko balio, iritzi eta xedeak biltzen dituena, eta abian

dagoen eskola politika batek osatzen duena

- Gurasoei prebentzio jardueretan parte hartzea interesatzen zaie
- Tokiko komunitateak arazo larritzat jotzen ditu drogak, eta prebentzio jarduerak ikastetxean egin beharko liratekeela uste du
- Osasuna sustatzeko adierazpen ofizialak formalki egin eta zabaldu dira
- ESI programa batean parte hartzerakoan, eskola politika osasuntsu batek ingurune egokia eskaintzen die ikasleei.

### **Legeria**

- Hezkuntza Ministerioaren edo bestelako Eskualde Agintarien betebeharra da arrisku faktoreak, ikastetxean drogak kontsumitzea barne, prebentzio jarduerak sustatzea eta koordinatzea
- Eskualde agintariak portaera kaltegarriak, ikastetxean drogak kontsumitzea barne, prebentzio jarduerak sustatu eta koordinatzeko izendatzen dituzte
- Osasun hezkuntzari ematen zaion denbora nazio edo eskualde legeriak erabakitzen du eta behar adinakoa da
- Irakasleen etengabeko prestakuntza derrigorrezkoa da eta legez ezarrita dago
- Derrigorrezko hezkuntza 13 urtetik aurrera luzatzen da

### **Ikastetxeen autonomia**

- Ikastetxeek autonomia dute irakastorduek prebentzio jarduererentarako erabiliko diren erabakitzeke
- Ikastetxeek autonomia dute programak aukeratzeko eta ezartzeko orduan

### **Ikastetxeen ohitura**

- Ikastetxeak aldian behin prebentzio jarduerak antolatzeko ohitura du (curriculumean edo curriculumetik kanpo, irakasleen edo kanpoko hezitzaileen eskutik, gurasoen partaidetzarekin ala ez, komunitatearen partaidetzarekin ala ez).

### **Ikastetxeen antolamendua**

- Ikastetxeak kontsulta eta lankidetzazko prozesuak erabiltzen ditu, irakasle, guraso eta ikasleek urteko jardueren aukeraketan parte har dezaten
- Ikastetxeak kontsulta eta lankidetzazko prozesuak erabiltzen ditu arazoak konpontzeko, esaterako drogekin loturiko gertakariak
- Ikastetxeko politikak jarraibide eta arau garbiak dauzka drogei buruz, eta zuzendaritzak arauok ezarri eta mantentzen ditu
- Ikastetxeak laguntza ematen du prebentzio jardueren inguruan
- Ikastetxeak curriculumetik kanpoko jarduerak egiteko fondoak lortu ditu
- Administrazioako langileek irakasleekin elkarlanean dihardute
- Ikastetxeko langileei garapen profesionalerako programetara joateko aukera ematen zaie
- Ikastetxearen eta tokiko osasun zerbitzuen arteko lankidetzazko onak da; adibidez, eskolan erizain bat dago.

### **Irakasleak**

- Ikastetxeko irakasle batzuek lehenago osasun hezkuntzako programetan hartu dute parte
- Irakasleen arteko giroa ona da, eta elkarrekin lan egitera eta esperientziak trukatzera ohituta daude
- Lortutako trebeziak eta eskarmentua beste irakasle batzuekin partekatuzko prest daude (adibidez, beste irakasle batzuen prestatzaile bihurtuz)

### **Prestakuntzarako finantziarioak**

- Urtero, nazio edo eskualde agintariak berariazko fondoak ematen dizkiete ikastetxeari prebentzio programak ezar ditzaten
- Osasun edo Hezkuntza Ministerioak fondoak ematen ditu ikastetxeetan proiektuak garatzeko
- Agintari zentralak lankidetzan aritzen dira beste agentzia eta erakunde batzuekin proiektu jakinak finantzatzeko
- Hainbat erakunde, banku eta agentziak fondoak ematen dituzte eskola proiektuetarako edota interes publikoko proiektuetarako

- Eskola sistemak fondoak ematen dizkie irakasleei jarduerazko gehiagotan parte har dezaten (adibidez, lankidetzazko jarduerazko zehatzei buruzko prestakuntza emateko)

### **Gurasoen iritzia**

- Guraso batzordeek ikastetxeko urteko jardueren planifikazioan hartzen dute parte
- Gurasoei prebentzio jarduerak interesatzen zaizkie eta eskolak prebentzio programak ezarriko dituela espero dute
- Gurasoak prebentzio jardueratan parte hartzeko prest daude edo lehenago horietan parte hartu dute

### **2.3 Jardunbide Egokirako Gomendio Orokorrak**

- Programa ezarri aurretik, ikastetxean bilera bat antola dezakezu, eskola agintariak, irakasleak, gurasoak eta ikasleak berak informatzeko.

- ESI programan interesatuta dauden zuzendariak oso garrantzitsuak dira programaren garapenerako. Programa zuzentzen duten irakasleekin bilera labur bat egin. Sarritan nahikoa izaten da irakasleei gauzak nola doazen eta laguntzarik behar duten galdetzea.

- Prestatu ortuegia, bai gelari eta bai ikastetxeari dagokionez. Programa behin aukeratuta, egin proiektuaren plana, programa ezartzeko pausoak eta dagozkien epeak zehaztu.

- Harremanetan egon aldi berean programa beste ikastetxe batzuetan ezartzen ari diren prestatzaile eta irakasleekin. Arazoak partekatzea oso erabilgarria da irtenbideak topatzeko.

- Programarekiko interesa bizi mantendu, berau ezartzen ari ez diren irakasleen artean ere. Irakasle taldearekin egindako bilera formaletan, programaren existentzia eta lorpenak gogorarazi.

- Programa behin amaituta, parte hartu duten geekin feedback saio bat antolatu (adibidez, gelan egindako materialez osaturiko erakusketa txiki bat, gurasoei irekia dagoena).



## 1. irudia. ESI Programak planifikatu eta ezartzeko prozesua

### Programa abiaraztea

#### Ingurunearen ebaluazioa egitea

Zenbat eta faktore gehiago identifikatu, orduan eta errazagoa izango da programa abiaraztea

- Hezkuntza Ministerioaren agindua, sustatu eta/edo koordinatu
- Ikastetxeek autonomia dute ESI programa bat ezarri nahi duten ala ez erabakitzeko
- Eskualde agintariak sustatu eta koordinatu egiten dute
- Ikastetxeek kontsulta prozesuak erabiltzen dituzte, irakasleak, gurasoak eta ikasleak barne hartzen dituztenak
- Irakasle motibatuak programa gidatu edo zuzentzeko
- Ikastetxeek prebentzio jarduerak burutzeko ohitura dute, edota hori egiteko misio adierazpen edo xede bat finkatu dute

ESI programa bat aukeratzeko orduan kontuan hartu beharreko irizpideak (ikus 1. Tresna)

### Programa ezartzea

#### ESI programa bat ezartzeko baliabideak lortzea

- Gurasoak programarekiko konprometitu
- Ministerioak, Eskualde Agintariak edo Ikastetxeko Aurrekontuak eskaintzen dituzten fondoak aztertu
- Ziurtatu irakasle eta ikasleentzako materialak eskuragarri daudela

Fondoak biltzeko gomendioak (ikus 2. Tresna)

#### ESI programa baten ezarpena antolatzea

- Programaren ezarpena ikastetxeko egutegian zehaztu eta antolatu
- Irakasleen etengabeko prestakuntza legeriaren bidez bultzatu.
- Irakasleei prestakuntza ikastaroetara joateko aukera eman, horrelakorik egonez gero, edota prestakuntza saioak antolatu, prebentzio programak eman dituzten irakasleek gainerako irakasleak treba ditzaten

Irakasleentzako prestakuntza antolatu (ikus 3. Tresna)

### Programari eustea

#### ESI programen kalitateari eustea

- Irakasleek prestatzaile gisa joka dezakete
- Irakasleak motibatuta daude programaren saio guztiak zehazki eta aurreikusitako ordenan ezartzeko
- Gurasoek prebentzio jarduerak jarrai dezatela nahi dute, eta jarduerok urtero ezartzeko eskatzen diote ikastetxeari
- Programa curriculumaren barruan sartu, irakasgai batean edo gehiagotan
- Ministerioak emandako fondoak ezarpenera bideratzen dira

Kalitatea kontrolatzeko ebaluazioa egin (ikus 4. Tresna)

### **3. kapitulua – Eragin Sozial Integraleko Programak Gelan Zuzentzea**

Kapitulu hau eskola prebentzioaren barruan ESI programa bat ezarri nahi duten irakasleei dago zuzenduta, edota hori egiteko eskatu zaienei.

Jarraian, horrelako ahalegin bat prestatu eta abiarazteko aholku erabilgarri batzuk ematen ditugu. Programaren arrakastarako elementurik garrantzitsuenak irakasleen motibazioa eta prestakuntza dira. Kapitulu hau ESI programen jarraibideak osatzeko erabil daiteke.

#### **Itxaropen okerrak ezabatzea**

ESI programa bat ezartzeko erabakia alderdi teoriko eta praktikoen menpe egoten da. Droga kontsumoaren eskola prebentzioaren gaia hainbat egoerengatik azaltzen da agenda administratiboan, eta prebentzio programarekiko itxaropenak sortzen dira. Itxaropen horietako batzuk bete egin daitezke, eta beste batzuk ez.

Adibidez, prebentzio programa batek egungo arazoak edo substantzia kontsumoak konpontzen lagun dezakeela pentsatu ohi da. Substantzien kontsumo esperimentalak oso zabalduta dago nerabezaroan; azken urteetan, ordea, gazteak gero eta goizago kontsumitzen hasten direla ikusi da.<sup>16</sup> Adin jakin batean substantzia kontsumoarekin loturiko arazo larriak garatzen dituzten gazteak (adibidez, mozkortzea edo droga ilegalak maiz kontsumitzea), normalean, goizago hasten dira substantziak probatzen kontsumo aurreratura pasa ez diren gazteekin alderatuta.

“Unplugged” bezalako ESI programen metodoetako asko prebentzio unibertsalera daude zuzenduta; hau da, droga kontsumo esperimentalaren prebalentzia baxua den taldeekin oso erabilgarriak dira. Hala ere, ESI

programen zenbait elementu (trebezia sozial eta pertsonalak irakastea eta iritzi arauemaileak zuzentzea) prebentzio selektiborako ere erabiltzen dira. Prebentzio unibertsala aukeratzera, gela edo ikastetxe osoa arriskuak ebaluatu gabe tratatzen da, batez besteko arriskua txikia dela pentsatuz. Egia esan, substantzia kontsumoaren mailak izugarri aldatzen dira herrialde, eremu geografiko eta ikastetxe batetik bestera, eta baita ikastetxe bereko gela artean ere. Europako ia herrialde guztietan, substantzien kontsumoari buruzko datuak nazio edo eskualdeko eskola ikerketetatik ateratzen dira. Informazio hori ezin bada eskuratu, Drogen eta Drogamendekotasunaren Europako Behatokiak estatistikak ditu EBko estatu bakoitzari buruz. *Ikus Sarrerako 1.0 Taula.*

#### **“Adituen” gaia**

Zenbait irakasleren ustez, drogen prebentzioa zeregin zaila da, eta gazteekin drogei eta menpekotasunari buruz hitz egitea ere bai. Horretaz kanpoko adituak arduratu beharko lirakeela iruditzen zaie, esaterako psikologoak, medikuak, gizarte langileak edo orientatzaileak. Ikastetxeek aspaldidanik dute droga kontuez hitz egiteko “adituak” ekartzeko joera; baina egia esan, pertsona horiek ez diete gazteei substantziak probatzeko gogoia kendu. Aitzitik, guztiz kontrakoa gertatzen da: ikastetxeetan behin bakarrik antolatzen diren bisitak eta hitzaldiak kaltegarritzat eta jokabide okertzat hartzen dira. Ikasleen jakin-mina handitzen dute, arreta nagusia drogen kontsumoan jarriz, eta ez dituzte gizarte trebetasunak edota iritzi arauemaileak jorratzen.

#### **Ikuspegi integrala**

“Unplugged” bezalako ESI prebentzio programen abantaila zera da: ez dutela arreta substantzien kontsumoaren alderdi kimiko eta fisiologikoetan bakarrik jartzen. Horiez gain, kontsumo esperimentalarekin eta kontsumo ohiko eta problematikora iragaitearekin loturiko alderdi sozial, arauemaile eta komunikaziozkoak ere jorratzen dituzte. “Unplugged” bezalako drogen prebentziorako ESI programen oinarri teorikoari buruz gehiago jakiteko, ikus Sarrera.

<sup>16</sup> Ikus DDEBk eta ESPADek substantzien kontsumoari buruz idatzitako azken txostena.

## **Mugei aurre egitea**

Arreta handia eskatzen duen programa konplexu bat ezartzerakoan, denbora eta espazio mugei ez ezik, gure motibazioak, gure lankideek eta ikasleek jartzen dizkiguten mugei ere egin behar diegu aurre. ESI programek oinarritzko eskakizun batzuk dakartzate berekin, eta programa bat aukeratzekoan horietan pentsatzea komeni da. Eskakizun horietatik garrantzitsuena denbora edukitzea da, bai prestaketarako eta bai ezarpenerako. Irakasleek prestakuntza tailer batean hartu behar dute parte; eta gainera, ikasturtean zehar, 20-30 ordu artean behar dituzte programa prestatu eta ondoren ezartzeko.

## **ESI ikastetxeko curriculumean sartzea**

Irakasleek, agian, drogen prebentziorako programak beren irakasgaiarekin bateragarriak ote diren galdetuko diote beren buruari; edo beharbada, prebentzio programak sartzeko beste irakasgai batzuk egokiagoak direla irudituko zaie. Egia esan, programa baten arrakasta erabakitzeke orduan, irakasgaiak askoz garrantzia txikiagoa dauka irakaslearen motibazioak eta trebeziek baino. Are gehiago: drogen prebentzioak ikastetxeetako diziplina guztiei dagokiela esan daiteke. ESI prebentzio programen diziplina arteko izaera suposizio horretan dago oinarrituta; horri esker, diziplina arteko talde batek ezar dezake programa. Hala ere, programaren ezarpen arrakastatsua hurrengo ezaugarriekin loturik dago:

- taldeko irakasle bakoitza motibatuta dago programa hartzeko, eta denborarekin ikastetxean berau zabaltzeko
- taldeko irakasle bakoitza prestakuntza berezia jasotzeko prest dago (ESI metodoan oinarritutako programentzat beharrezkoa da normalean)

## **3.1 Hasi aurretik**

### **Irakasleen prestakuntza**

Baliabideak zuhurtzia handiz esleitu beharko lirateke. Sarritan, Europako ikastetxeetan zehar, irakasleak edozein gaitan mota guztietako “prebentzio edukiak” sartzeko trebatzen dira. Horri prebentzio “integratua” edo “holistikoa” deitu ohi zaio; ikuspegi horrek, ordea, ez die orientazio argi eta zehatzik ematen irakasleei, besteak beste ongi pentsatutako egitura bat eta kalitatea kontrolatzeko aukera.

ESI programa bat ezartzeko, irakasleek prestakuntza integrala jaso behar dute, prebentzio arloko adituen eskutik eta ESI irakasle eskarmentudunen balizko laguntzarekin. Irakasleek informazioa eta komunikazioarekin loturiko prestakuntza jasotzen dute, ordu gutxi batzutan burutu ezin ez den protokolo edo curriculum baten ondoren. “Unplugged” ESI programarako prestakuntzak, adibidez, bi egun eta erdi iraun dezake.

Ikastetxe desberdinetako irakasleen presentziak esperientzia eta ideia truke onuragarria ekar dezake; eta gainera, drogen prebentziorako ESI programekin diharduten irakasleen laguntza sareak sortzeko balio dezake.

### **Eskola ingurunearen garrantzia**

Zure ikastetxean ESI programa bat ezartzen duen lehenengo irakaslea bazara, askoz denbora gehiago eman eta ahalegin handiagoa egin beharko duzu droga prebentzioaren edo osasun hezkuntzaren arloan tradizio luzea duten ikastetxeetako irakasleekin alderatuta. Zure ikastetxeak iraganean ESI programak ezarri baditu, horietan parte hartu zuten lankideen esperientzia aprobetxa dezakezu. Ikasleen artean prebentzio jarduerak bultzatzeko, oso garrantzitsua da drogen kontrako arauak dituen eskola ingurune osasuntsu bat edukitzea.

### **Xede taldea**

Programan parte hartuko duten ikasleen adina aukeratu egin behar da, garapenaren etapan oinarrituz. “Unplugged” programa,

esaterako, 12-14 urteko nerabeentzat diseinatu eta ebaluatuta dago. Horrek ez du esan nahi programak ezin dienik ikasle gazteago edo zaharragoi mesede egin; hala ere, zentzua erabili beharko litzateke programa ikasle gazte edo zaharragoetan ezarriz gero. Adibidez, ikasleak 12 urtetik beherakoak badira, drogei buruz ematen den informazioak interesa piztuko ez diela ziurtatu behar da. 14 urtetik gorako ikasleen kasuan, kontuan hartu behar da eraginkortasuna txikiagoa izan daitekeela.

Irakasleek erantzun beharreko hurrengo galdera zera da: ikastetxeko zein talderekin egingo duten lan. Aukeraketa edozein dela ere, hurrengo kontuan hartu behar da:

- a. Prebentzio unibertsalak hobeto funtzionatzen du goiz hasten denean, eta programak garapenaren ikuspegitik egokia den unean ezarri beharko lirateke (Hawks et al.,2002)<sup>17</sup>. Noski, horrek ez du esan nahi ikasle zaharragoak automatikoki baztertu egin behar direnik.
- b. Estrategiarik hoberena gela osoarekin lan egitea da, ahal denean.

Horrez gain, aurretik prestaketa lana egin beharko litzateke, ikasleen edo haien familien “ezusteko erreakzioak” saihesteko. Parte hartzen duten ikasleak oso motibatuta egon beharko lirateke programarekiko, eta interesa mailarik gorenean mantendu beharko litzateke.

### **Planifikazioa: denbora eta espazioa**

Programaren ezarpena arrakastatsua izateko, ezinbestekoa da ordutegi bat prestatzea. Ordutegiak bi alderdi hartu beharko lituzke barne:

1. Programaren ordutegi orokorra (hau da, hasieratik amaierara)
2. eskola bakoitzaren ordutegia ikasturtean zehar

---

17 Hawks D, Scott K, McBride N. (2002), Prevention of psychoactive substance use : a selected review of what works in the area of prevention. Geneva, WHO 2002

Ikastetxe bakoitzak bere antolamendua du. Ideia ona da ahalik eta goizen lekua erreserbatzea, eta ESI programa irakatsiko den egunak eta orduak ikastetxeko egutegian argi markatzea. Horrela, irakasleak edozein unetan prozesua nola doan ikusi ahaliko du, eta horri esker:

- ez du eskolarik jarriko oporrak, azterketak eta abar datozenean.
- “Unplugged” bezalako programa askok, elkarren segidako bi eskolen ondoren tarte bat (normalean astebete) uztea gomendatzen dutela gogoratuko du. Planifikazioari esker tarte hori errespeta daiteke, ahal den neurrian.
- aldeztatik beste gela edo lekuren bat erreserba dezake, ikasleekin ariketak egiteko.
- denbora gehiago eduki dezake prestaketarako, irakasle eta gurasoekin komunikatzeko, eta ebaluazioa egiteko.

Hasi aurretik, irakasleek espazioa eta denborari dagokionez programak dituen eskakizunak irakurri beharko lituzkete, hurrengo galderei buruz gogoeta eginez:

- Noiz hasiko dut programa?
- Noiz amaituko dut programa?
- Zenbat denbora beharko dut eskola bakoitza prestatzeko eta emateko?
- Zenbat denbora beharko dut lankide eta gurasoekin komunikatzeko, eta noiz gertatuko da hori?
- Non egingo dugu lan?

### **Ikasleak prestatzea**

Ikasleei programari buruz informazioa ematea zeregin zaila baina beharrezkoa da, eta irakasle batzuegan urduritasuna sor dezake. Programaren ardura duen irakasleak hurrengo oso argi azaldu behar du:

- programa zergatik eta non ezarriko den, gela edo talde zehatz horrekin

arazoren bat dagoelako ideiarik ez sortzeko.

- programa ikastetxeko curriculumaren zati bat dela.
- eskualdeko/herrialdeko/nazioarteko inguruneari buruzko gauzak ikasteak, talde handiago bateko kide izatearen sentimendua indartzen duela.
- drogarik gabeko portaerei eusteko “prebentzio” kontzeptuaren esanahia eta onurak zera dira: beharbada droga legal edo ilegalak probatu dituzten ikasleak haien eraginpean ez jartzea.
- “bizitzarako trebetasunak” irakatsi eta tabakoa, alkohola eta beste drogei buruzko ezagutzak emateaz gain, iritzi arauemaileekin lan egin behar da.

Programarekiko berotasuna erakusten duen irakasle batek, gelan gertatuko denari buruzko itxaropen positiboak sor ditzake ikasleengan.

### **Gurasoak eta laguntzaileak konprometitzea**

Normalean, guraso eta laguntzaileei asko interesatzen zaie hezkuntzarekin loturiko gaietan parte hartzea, portaera oso desberdinak izan ditzaketen arren. Hainbat arrazoi direla eta, droga prebentzioaren gaia oso korapilatsua izan daiteke beraiantzat. Hasteko, familia batzuetan tabakoa, alkohola edota beste droga batzuekin loturiko arazoak egon daitezke. Bigarrenik, gurasoek itxaropen eta jarrera desberdinak izan ditzakete gai horren inguruan. Zenbaitentzat, drogen prebentzioa seme-alabak babesteko modu bat da; beste batzuentzat, aldiz, kaltegarria izan daiteke drogei, substantzien kontsumoari edo mendekotasunari buruz hurrekin hitz egitea.

Beraz, alde zuzenetik bilera bat egitea komeni da programa baterako aukeratutako haurren gurasoekin, helburu hauek betetzeko:

- a. programaren edukiak, xedeak eta metodoak azaltzea

- b. gurasoei aukera bat ematea ikastetxean drogei buruz hitz egitearekin loturiko edozein kezka azaltzeko, eta baita galderak egiteko ere.

- c. gai zehatzei edo gurasoen prestakuntzari buruzko interesa piztea (“Unplugged” programan daude eskuragarri)

Beti lanpetuta daudenez, guraso gutxi joango dira bilera horietara. Partaidetza handitzeko modu bat, informazio hori ikastetxeetan aldizka egiten diren bileretako batean sartzea da, gai berezi baten modura. Irakasleek laguntza eskatzen badute, ideia ona izango litzateke bilera horretan ikastetxearekin loturiko gizarte zerbitzuetako edo osasun arloko langileek ere parte hartzea. Gurasoekin bilerak egiteko ideiak [www.eudap.net](http://www.eudap.net) helbidean eskura daitezke

Bilera egitea ezinezkoa bada, ikastetxeak eta gelako irakasleak programa berriari buruzko informazioa idatziz eman beharko liekete familiei (adibidez, ikastetxeko aldizkarian).

### **Eskola elkarte osoa konprometitzea**

Irakasle batek prebentzio programa bat abiaraztea erabakitzen badu zuzendaritza batzordeak edo zuzendariak horretara behartu gabe, oso garrantzitsua da eskola elkarteko beste kide batzuei programan parte hartzera gonbidatzea. Adibidez, zuzendariak denbora, logistika eta beste baliabide batzuen erabilera erraz dezake. Beste irakasle batzuek ordutegiak edo ordezkapenak antolatuz lagun dezakete. Ikastetxeko beste interesdun batzuk, esaterako medikuak, erizainak, gizarte langileak edo psikologoak, eta baita jagolea ere, baliagarriak izan daitezke. Ikastetxeko langile guztiak konprometitu daitezke drogaren kontrako eta osasunaren aldeko politika batekin.

Ikastetxe osoa informatzerakoan, programari buruzko interesa piztuko da eta politikaren neurriak errazago ezarri ahal izango dira.

### 3.2 Programa abiaraztea

Programa bat ezartzea premiak, baliabideak eta mugak orekatzean datza. Atal honen xedea irakasleei oreka horri eusten laguntzea da.

ESI programa baten ezarpenerako baliabide garrantzitsuenak hauek dira irakaslearentzat:

- Informazioa eta ezagutza
- Talde lana, lankidetzak, sarean lan egitea
- Lekua
- Baliabide materialak

Eta baliabide horiek elkarrekin erabat lotuta daude!

#### Informazioa eta ezagutza

Programa osoan zehar, ezinbestekoa da substantzien kontsumoaren eta horrekin erlacionatutako arazoaren ezaugarriak ongi ezagutzea. Programa hasi aurretik, irakasleek beren ezagutza maila ebaluatzea gomendatzen dugu, ezagutza hori programan zehar etengabe eguneratzearekin batera. 8. tresnan informazio gehiago eskaintzen duten irakurgai eta web orrialde batzuk azaltzen dira. Aurretiko prestakuntza ikastaroen aukeretako bat ezagutzak handitzea da. “Unplugged” programaren ereduak jarraitzen duten herrialde batzuetan, irakasleei prestakuntza eta jarraipenerako laguntza eskaintzen zaie, telefono zenbakien bidez esaterako. “Unplugged” en eskuliburua ere doan eskura daiteke, eta drogei eta alkoholari buruzko informazio zehatza ematen du. [www.eudap.net](http://www.eudap.net) helbidean dago eskuragarri

Drogen prebentziorako programarik ezartzen ez denean ere, ESI hezkuntza ereduak gomendagarria da; izan ere, ereduak irakasten dituen trebeziak eta teknikak unibertsalak dira, eta garapen pertsonalerako oso lagungarriak izan daitezke.

Irakasleek jarduerak ikasten eta irakasten igarotzen duten denbora inbertsio ona da, bai ikuspuntu pertsonaletik eta bai hezkuntzaren aldetik.

### Talde lana eta sareko lana

Ikastetxean elkarrekin lan egiteak programa errentagarri bihurtzen laguntzen du. Irakasleak beste ikastetxe batzuetan programa bera edo antzeko zerbait ezartzen ari diren beste batzuekin lan egitea gomendatzen dugu, programa horrek talde lanik aurreikusten ez badu.

Lagungarria izan daiteke bilerak antolatzea, irakasleek (hau da, prestakuntza ikastaro berean daudenean) beren esperientziak partekatu, arazoei buruz hitz egin eta beren sentimenduak azal ditzaten. Gainera, laguntza eta segurtasuna eskaintzen dien ingurune batez gozatuko dute. Bilera horietan, irakasleek aurrera jarraitzeko laguntza jaso eta beren iritziz “gaizki” dabilen edozeri buruz hitz egin dezakete. Are gehiago, gai beraren inguruan lanean diharduten pertsona sare bat ere sor daiteke. Horri esker, prebentzioan jende gehiagok hartuko du parte eta jardunbide egokiak gehiago zabalduko dira.

#### Talde irakaskuntza

Ohiko eskoletan, irakasle bakar bat egoten da 25 eta 30 ikasle artean eduki ditzakeen gela batean. Zenbait kasutan, horrek eraginkortasuna gutxitu dezake, eta egokiagoa izan daiteke gela horretaz bi irakasle arduratzea. Hori are garrantzitsuagoa da “Unplugged” edo antzeko ESI programak bezalako curriculum oso interaktiboekin lan egiterakoan.

Taldeak osatzea ESI programak irakasteko oso modu eraginkorra da. Hona hemen metodo horren abantaila batzuk:

- laguntza praktikoa eskolan zehar
- eskolak luzatuz gero, elkarri denbora “lapur” diezaiekete
- eskola amaitu ondoren iritziak eta kezkek parteka ditzakete
- haurrei arreta gehiago eskaini diezaiekete, talde gisa zein banaka
- norbait gaixo edo oporretan egonez gero, beste irakasle batek ordezkari dezake
- diziiplina zeharkako irakaskuntza

- ikasleen arteko komunikazioa hobetzen da, eta baita ikasle eta irakasleen artekoa ere
- gurasoekiko komunikazioa errazten da
- ESI irakasle trebatuz osatutako talde bat eredu bihur daiteke drogen prebentzioarekin loturiko gaietara begira, bai zure ikastetxean eta baita zure eskualdean ere

Nola lortu talde irakaskuntza:

- bilerak eta talde eztabaidak antolatu, edo sartu programa irakasleen hurrengo biltzarren gai zerrendan
- idatzi aurkezpen labur bat lankideak informatzeko
- ESI programen irakaskuntzan eskarmentua duten beste irakasle batzuei zure lankideei/zuzendariari hitzaldi labur bat emateko eskatu

Lankideekiko harremanetan kemena eta grina erakustea komeni da, talde lana eta proiektuarekiko partaidetza indartzeko. Taldeko kide guztiek aurretiko prestakuntza bera jaso behar dute; izan ere, prebentzioa erronka serioa da eta oinarrizko ezagutza batzuk edukitzea eskatzen du.

### **Dirulaguntzei buruz**

Hona hemen oztopo ohikoenak, proposatzen ditugun irtenbideekin batera:

Beste kezka bat programak behar dituen finantza baliabideak dira. ESI programa bat abiarazteko erabakia hartzen denean, programa behar bezala prestatu eta ezartzeko baliabide ekonomiko nahikoak daudela egiaztatzea behar da.

Garrantzitsua da ikastetxeko fondoak eta ikastetxea bera erabiltzea, eta baita programa hori lehenago ezarri duten lankideei laguntza eskatzea ere. Fondo gehiago behar izatekotan, prebentzio jarduerentzako dirulaguntzak ematen dituen babesle (ikus 2. tresna) edo agentzia batengana jo dezakegu.

“Unplugged” eredurako behar diren materialak doakoak dira; hala ere, beste ESI programa batzuek kostuak ekar ditzakete berekin.

### **Denbora optimizatzea**

Eskola prebentzioko programak irakastorduentzat daude diseinatuta (eskola bakoitzak 50 minutu inguru irauten du). Hala ere, zenbait arrazoi direla eta, praktikan horrek ez du beti funtzionatzen.

OZTOPOA	IRTENBIDEAK
Gelako giroa txarra da/portaera problematikoak daude	<ul style="list-style-type: none"> <li>ikasleak aldeztu aurretik prestatu</li> <li>aldeztu aurretik talde egokiak antolatu</li> <li>“izotzaldia urtzeko” ariketak erabili (“Unplugged”en eskuliburuan daude)</li> <li>talde irakaskuntza</li> </ul>
Ikasle kopurua oso handia da (30+)	<ul style="list-style-type: none"> <li>talde irakaskuntza</li> </ul>
Ikasleek ikasteko zailtasunak edota arazo mental zein fisikoak dituzte	<ul style="list-style-type: none"> <li>binaka lan egin</li> <li>aldeztu aurretik talde egokiak antolatu</li> <li>talde irakaskuntza</li> <li>arriketak egokitu, ikasle guztiek parte har dezaten (adibidez, gorputzarekin loturiko ariketak)</li> </ul>
Ikasleak ez daude ohituta interaktiboki/taldeka lan egitera	<ul style="list-style-type: none"> <li>ikasleak aldeztu aurretik prestatu/haiekin entseatu</li> <li>zereginak erraztu</li> <li>talde irakaskuntza</li> </ul>
Irakasleak ez du rol jokoa/idea jasaren metodoa ondo ezagutzen	<ul style="list-style-type: none"> <li>irakaslearen eskuliburua edo ikastetxeko beste baliabide batzuk berrikusi</li> <li>prestatzailearekin erakustaldi bat antolatu</li> <li>rol jokoa erraztu</li> </ul>
Ikasleak berandu datoz eta eskola berandu hasten da	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aurreko egunean ohartarazpen bat eman</li> <li>Garaiz etortzen diren ikasleak saritu</li> <li>eskolaren ordutegia aldatu</li> </ul>
Gelan leku gutxi dago, edo ingurunea berrantolatu behar da	<ul style="list-style-type: none"> <li>beste irakasle batzuei edo ikasleei laguntza eskatu</li> <li>gela aurreko egunean berrantolatu</li> <li>jarduerak egokitu, eskura dagoen tokiarekin bat etor daitezten</li> </ul>
Materialak ez daude prest	<ul style="list-style-type: none"> <li>materialak aurreko egunean prestatu (ikus beheko zerrenda)</li> <li>egun batzuk lehenago ikasleei etxeko lanak bidali</li> </ul>

Ingurune lagungarri batek ere bizimodu osasuntsua eramaten laguntzen die ikasleei. Hona hemen adibide batzuk: ikastetxean edo handik gertu publikitatea jartzeari buruzko politikak, drogarik gabeko ikastetxeak eta kerik gabeko eremuen legeria. 5. tresnak eskola bakoitzaren aurretik aztertu beharreko zerrenda bat eskaintzen du, eta 6. tresnak, berriz, eskola amaitu ondoren aztertu beharreko beste bat.

### 3.3 Programa ebaluatzea

“Unplugged”ek bezala, ESI programa askok datuak jasotzea hartzen dute barne, programaren garapena edota haren ondorioak ebaluatzeko. Informazioa biltzea, gutxienez programaren eraginkortasuna eta kostuak ebaluatzeko

eta zehazteko, lehenetsitatu jo behar dira irakasleek; programak berak edo arrazoi administratiboek horretara behartzen ez badute ere. 6. eta 7. tresnak lagungarriak izan daitezke programa ebaluatzeko.

**1. oinarrizko printzipioa:** gaur inori axola ez zaiola iruditu arren, bihar, beharbada, egin zenuena eta nola egin zenuen azaltzeko eskatuko dizute.

**2. oinarrizko printzipioa:** berehala idazten ez duzuna, biharko ahaztu egingo zaizu

Beraz, kapitulu honen amaieran ebaluazioa egiteko balio duten elementuen zerrenda dago. Informazioa programaren ikasgai bakoitza amaitu eta berehala idatzi behar da.



## 1. tresna: Nola aukeratu Eragin Sozial Integraleko (ESI) Programa bat?

### ***Hurrengoak drogen prebentziorako ESI programa on bat antzematen jakiteko gomendatutako irizpideak dira:***

- *Programa irabazi asmorik gabeko erakunde batek sortu edo gomendatu du, edota industria komertzialekin (adibidez, tabako enpresekin) loturarik ez duen agintari batek*
- *Programa diseinu egoki baten bidez ebaluatu da, esaterako, proba kontrolatu ausazkotuen bidez edo kontrol talde batekin aurretik eta ondoren egindako ikerketen bidez. Hurrengoak ez dira hain diseinu egokiak: aurretik eta ondoren konparazio talderik gabe egindako ebaluazioak, programaren ondoren ikerketa bakar bat egitea, ausazkotasunik gabeko konparazio ikerketak eta taldeekin konparatu gabe egindako kasu azterketak. Horrez gain, programa ebaluatzerakoan erabilitako azterketa datuen ezaugarriekin bat etorri behar da.*
- *Programak eraginkortasunari buruzko froga garrantzitsuak erakutsi ditu: programaren ebaluazioak, emaitzei dagokienez, estatistikoki esanguratsua den eta neur daitekeen desberdintasun bat erakusten du, edo eraginkortasunaren tamainaren adierazle sinesgarri bat. Emaidza esanguratsuen artean honako hauek egon behar dira: kontsumoaren hasiera gutxitzea, hasiera atzeratzea, hasieraren gorakada motelagoa edo droga kontsumoaren maiztasuna txikiagotzea. Hau da, emaitzak ez dira bakarrik ezagutzarekin, autoestimazioarekin edota gaitasunekin loturik egon behar. Ebaluazioak urte batean zehar ondorioek bere horretan dirautela erakusten du.*
- *Programaren edukia bat dator xede taldearekin eta ingurunearekin. Programa adin/maila jakin bateko ikasleentzat dago diseinatuta, eta bere helburua portaerak aldatzea da, talde eta*

ingurune horrentzat egokia eta argia den metodo baten bidez.

- *Programaren funtsezko arrazoia argi adierazita dago, eta programaren edukia eta prozesuak bat datoz bere xedeekin.*

- *Programa “eragin sozial integraleko eredua” delakoan oinarrituta dago. “Eragin sozial integraleko eredua” delakoan oinarritutako programak dira eraginkorrenak. Izan ere, egungo arauetan, ikasleek substantziarik ez kontsumitzeko konpromiso/asmotan, bizitzarako trebetasunetan eta substantziei buruzko ezagutzan jartzen dute arreta.*

- *Irakaskuntza eta ikaskuntza interaktiboak dira; programak ikasleen partaidetza aktiboa bultzatzeko teknikak hartzen ditu barne, besteak beste eztabaida irekiak, problema soluzioa, ideia jasa, erabakiak hartzea, norbera finkatzeko prestakuntza, rol jokoak eta talde txikitan antolatutako saioak.*

- *Programak ezarpenerako behar den informazioa eta gomendioak ematen ditu, esaterako jarraibideak eta prestakuntza zein ezarpenerako materialak, edo bestelako laguntza.*

- *Programak prestakuntza eskaintzen die berarekin loturik dauden buruzagiei.*

## 2. tresna: Fondoak nola bildu

Ikastetxearen aurrekontua nahikoa ez denean, funtsezko printzipio hau jarraitu behar da prebentzio jarduerak finantzatzeko: *finantziazioa bilatzea*. Hona hemen sarritan ahaztu edo erabiltzen ez diren kanpo finantziatorako iturri batzuk:

- Hezkuntza Ministerioa, ikastetxeetako osasun hezkuntzako jarduerentzat

- Osasun Ministerioa, osasun hezkuntzako jarduerentzat

- osasuna sustatzeko/osasun hezkuntzako agenziak eta sareak

- bankuek edo kreditu erakundeek proiektuentzat emandako fondoak
- Eskualde mailan proiektuentzat ematen diren fondoak
- haurren hezkuntzaren arloan diharduten irabazi asmorik gabeko erakundeak
- sari monetarioak ematen dituzten eskola lehiaketak

### **3. tresna: Irakasleen prestakuntzari etekinik handiena nola atera**

- Jarri harremanetan prestatzaile batekin, tailerra antolatu edota ezartzeko
- Prestakuntza ikastaro batean parte hartuko luketen irakasle kopurua aztertu
- Hautespene irizpideak finkatu, eta funtsezko arazoia azaldu (irakaskuntza gel(et)an bertan ematea; generoen ordezkariak orekatu)
- Eskura dauden fondoak kontuan izanik, prestakuntza zenbat irakasle jaso dezaketen erabaki
- Ikastetxeko egutegiarekin bateragarriak diren datak finkatu prestakuntzarako

### **4. tresna: Kalitatea kontrolatzeko ebaluazio bat nola egin**

- Egon harremanetan programaren arduraduna den Agentziarekin
- Programa onetsi duen Agentziari galdetu ea ikastetxeak, irakasleek eta ikasleek prozesuak kontrolatzeko inprimakirik bete behar duten. Horrelakorik ez badago, prestatzaile zerorrek
- Irakaslearen kontrol inprimakia (saio bakoitzaren aurretik eta ondoren bete behar da) 5. eta 6. tresnan azaltzen diren elementuak hartu beharko lituzke barne.
- Ongi antolatutako irakaskuntzaren adierazle artean hauek azpimarratu behar dira: irakaslearen konfiantza eta gogobetetasun handia, ikaslearen iritzia positiboak eta haien onespena.
- Programan parte hartzen duten ikasleek ebaluazioan ere hartu behar dute parte.
- Ikastetxeko giroan, ongizatean eta pertsonen arteko harremanetan gertatzen diren aldaketak programa arrakastatsua baten adierazleak dira.
- Aurrerapenak ebaluatzeaz arduratzen den Agentziari programa hobetzeko gomendioak eman.

## 5. tresna: eskola bakoitza eman aurreko zerrenda

### **Eskola bakoitzaren aurretik**

“Unplugged” bezalako ESI programa bat ezartzeak hainbat xehetasun praktikoz arduratzea dakar, eta horietako batzuk alde aurretik antola daitezke.

Eskola bakoitzaren aurreko egunean, hartu tartetxo bat hurrengo zerrenda irakurtzeko, programaren eskuliburuak emandako jarraibideen arabera.

<b>Eskola honen edukia ongi ezagutzen dut</b>	
<b>Eskolak ___ minutuko iraupena izango du</b>	
<b>Eskola honetako ariketak ongi ezagutzen ditut</b>	
<input type="checkbox"/> Sarrera <input type="checkbox"/> Adorea emateko ariketak <input type="checkbox"/> Rol jokia <input type="checkbox"/> Talde lana	
<b>Ikasleak informatuak/gogoraraziak izan dira</b>	
<input type="checkbox"/> Eskolari buruz <input type="checkbox"/> Beren zereginei buruz	
<b>Eskola honetarako materiala erabiltzeko moduan dago</b>	
<input type="checkbox"/> papera <input type="checkbox"/> blokak <input type="checkbox"/> boligrafoak/arkatzak/errotuladoreak/margoak <input type="checkbox"/> guraizeak <input type="checkbox"/> kola/zinta itsaskorra <input type="checkbox"/> ikasleen lan materialak (eskolaren arabera)	
<b>Eskola honetarako tresnak eskuragarri daude eta ongi dabilta</b>	
<input type="checkbox"/> Ordenagailua <input type="checkbox"/> Bideografoa <input type="checkbox"/> Bideokamera/kamera <input type="checkbox"/> Telebista <input type="checkbox"/> Gardenki proiektagailua <input type="checkbox"/> Diapositiba proiektagailua <input type="checkbox"/> Beste batzuk	

## 6. tresna: Eskolen jarraipena egitea

### Eskola bakoitzaren ondoren

Beheko zerrenda erabil dezakezu programaren ebaluazioa eta txostenak egiteko behar den informazioa idazteko. Zerrendari itxura erakargarriagoa emateko tarte bat hartzea gomendatzen dizugu, programan parte hartzen duten irakasle guztiek erabil dezaten.

<b>ESKOLAREN IZENBURUA EDO ZENBAKIA:</b>	
<b>IKASTETXEA:</b>	<b>GELA:</b>
<b>Eguna</b>	
<b>Iraupena</b> (minututan)	
<b>Ikasle kopurua</b>	
<b>Garapena</b>	
Ariketa hauek egin ditugu	
Ariketa hauek laga ditugu	
<u>Ariketak lagatzeko arrazoiak</u>	
<b>Egikaritza</b>	
<u>Irakasleak</u> eskola eman duen moduari buruz duen gogobetetasun maila	1-10 eskala 0= batere ez pozik 10= oso pozik
<u>Oharrak</u>	
<u>Ikasleen partaidetza</u>	0 = ez da etorri 10 = oso altua
Ikasleek ekarpenik egin al dute, galderak egin eta iritziak emanez?	
Ikasleak aktibo, interesatuta eta motibatuta egon al dira?	
Ikasleen gogobetetasun maila <input type="checkbox"/> Ez da ebaluatu	eskola gustatu zaiela esan duten ikasleen %
Bereziki <b>ongi</b> funtzionatu duten gauzak	
<b>Gaizki</b> irten diren gauzak	
Irakasleak <b>aldatu</b> nahiko lituzkeen gauzak	

## 7. tresna: Programaren Ezarpena Kontrolatzea

Programak nazio/eskualde mailan izan duen ezarpena eta zabalkundea, ikasturtearen amaieran ikastetxeei informazioa eskatuz ikus daiteke. Beheko zerrenda erabil daiteke programaren ebaluazioa egin eta txostenak prestatzeko.

<b>Ikasturtea</b>		
<b>Programaren izena</b>		
<b>Parte hartzen duten eskualdeak</b>	<b>Zerrenda</b> Biztanle guztientzat	
<b><i>Eskualde mailan</i></b>	Maila horretan dauden ikastetxeen guztizko kopurua	
parte hartzen duten ikastetxeen %	Ikastetxeen guztizko kopurutik, programan parte hartzen dutenen kopurua	
Onespen maila %	Galdetutako ikastetxeen guztizko kopurutik, programa ezartzea onartu dutenen kopurua	
Ezarpen maila %	Baietz esan duten ikastetxeen guztizko kopurutik, programa gutxienez partzialki ezarri dutenen kopurua	
Hartze maila %	Ikastetxeen guztizko kopurutik, programa gutxienez partzialki ezarri dutenen kopurua	
<b><i>1. urtetik 2. urtera hartze mailan izandako aldaketa</i></b>	2. urteko hartze mailaren % – 1. urteko hartze mailaren %	
<b>Ikastetxe mailan</b>		
	Programa gutxienez partzialki ezartzen ari diren gela kopurua	
	Parte hartzen duten ikasle kopurua	
	Prestakuntza jaso duten irakasle kopurua	
ezarritako unitateen %	Programaren guztizko unitate kopurutik, gutxienez partzialki ezarritako unitate kopurua	
amaitutako unitateen %	Ezarritako unitate kopurutik, amaitu diren unitate kopurua	

## 8. tresna: Gomendatutako Irakurgaiak

### Liburuak eta Argitalpenak

Thomas R. School-based programmes for preventing smoking. *The Cochrane Database of Systematic Reviews* 2002, Issue 2. Art. No.: CD001293. DOI: 10.1002/14651858.CD001293.

Sussman S, Earleywine M, Wills T, Cody C, Biglan T, Dent CW, Newcomb MD. The Motivation, Skills, and Decision-Making Model of "Drug Abuse" Prevention. *Substance Use & Misuse* 2004; 39: 1971–2016

Europako Droga Arazoaren Egoera – 2006ko Urteko Txostena

<http://ar2006.emcdda.europa.eu/download/ar2006-en.pdf>

### Web orrialdeetako informazio iturriak

EU-Dapen Web Orrialde Ofiziala

<http://www.eudap.net/>

Drogen eta Droga-mendekotasunaren Europako Behatokia

<http://www.emcdda.europa.eu/>

-Baliabideak:

<http://www.emcdda.europa.eu/index.cfm?fuseaction=public.Content&nnodeid=9744&sLanguageiso=EN>

- Analisiak:

<http://www.emcdda.europa.eu/index.cfm?fuseaction=public.Content&nnodeid=9741&sLanguageiso=EN>

Drogen Prebentziorako Sare Globala

<http://www.gdpm.org/>

Alkohola eta beste Drogei buruzko Europako Eskola Ikerketen Proiektua

<https://www.espad.org>

PERK (Prebentzio eta Ebaluaziorako Baliabideen Kita)

<http://www.emcdda.europa.eu/?nnodeid=9932>

Drogen Kontsumoa Murrizteko Programen Datu Basea (EDDRA)

<http://eddra.emcdda.europa.eu/>

Ebaluazio Tresnen Bankua

<http://eib.emcdda.europa.eu/>

Plan Nacional Sobre Drogas

<http://www.pnsd.msc.es/>

Drogomedia

<http://www.drogomedia.com/>



**DE SLEUTEL**

Centrum voor de preventie van  
overgewicht en obesitas



centrum adriatologie



ΚΕΝΤΡΟ ΠΡΟΛΗΨΗΣ  
ΤΗΣ ΕΞΑΡΤΗΣΗΣ ΑΠΟ ΝΑΡΚΩΤΙΚΑ  
ΚΑΙ ΠΡΟΑΓΩΓΗΣ ΤΗΣ ΥΓΕΙΑΣ  
ΣΕ ΣΥΝΕΡΓΑΣΙΑ ΜΕ ΤΟΝ ΟΧΑΝΑ



OSSERVATORIO  
EPIDEMIOLOGICO  
DELLE DIPENDENZE  
R. ZIGANI F. ZUCCHI

